



Hirigintzaren eragina euskararen kale erabileran

Landa lana eta ondorio partzialak: GERNIKA

2025eko urria

Botoi Ikerketa Taldea [EHU/UPV]
Soziolinguistika Klusterra

Edukiak

1.	SARRERA OROKORRA	3
1.1	Txostenaren edukiak	3
1.2	Ikerketari sarrera	3
2.	PROIEKTUAREN HIPOTESIA ETA HELBURUAK	5
3.	MARKO TEORIKOA	6
4.	LANTALDEA	7
5.	METODOA	9
5.1	Lan prozedura	11
5.2	Lurralde mailako analisia	11
5.3	Herri mailako analisia	12
5.3.1.	Ikerketa parte-hartzailea	13
5.3.2.	Ikerketa parte-hartzailetik ikerketa teknikora	18
5.3.3.	Ikerketa teknikoak, indikatzaileak eta kartografia	19
6.	LANDA LANA ETA EMAITZA NAGUSIAK	36
6.1	LANDA LANA	36
6.1.1	Herritarren hirigintza-ikuspegia	38
6.1.2	Auzoen hautematea	40
6.1.3	Ibilbide eta espazio nagusien hautematea	41
6.1.4	Ikerketa teknikorako auzoak, elkarguneak eta ibilbideak	42
6.2	EUSKARAREN EGOERA GERNIKAN	43
6.2.1	Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa	43
6.2.2	Gaitasuna Erabilera Transmisioa: GET indizea	49
6.3	HIRIGINTZA-ALDAGAIK ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA: ONDORIO NAGUSIAK	53
7.	AURRERA BEGIRA	70

Botoi Ikerketa Taldea [EHU/UPV]

koldo.telleria@ehu.eus

Soziolinguistika Klusterra

1. SARRERA OROKORRA

1.1 Txostenaren edukiak

Txosten honetan aurkezten den lana, ikerketa proiektu zabalago baten baitan kokatzen da, izan ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko bost udalerritan egin baita ikerketa bera, tartean, Gernikan. Beraz, ikerketa nagusi horren garapenerako Gernikan egindako azterketa zehatzetik ateratako ondorio partzialak elkarbanatu nahi dira dokumentu honetan. Ikerketa honetan hirigintzaren eta euskararen kale-erabileraren arteko erlazioak aztertu nahi dira. Horretarako, **azterketa partzialak** egin dira bost herrietan eta dokumentu honetan **herri hauetako bati egiten zaion itzultze jasotzen da**.

Lehen 5 puntuetan, ikerketa orokorra kokatu eta baliatutako ikerketa-metodoaren deskribapena egiten da. Gernikan egindako azterketa zehatzetik eratorritako datu eta ondorioak 6. puntuan garatzen dira. Ondoren, 7. atalean, etorkizunerako lan-ildoak proposatzen dira. Txostenari metodoak eman dituen emaitzak eranskin moduan kokatu zaizkio, ez bai dira oso irakurterrezak. Dena dela, mapa hauek 6. puntuan zehaztutako ondorioen oinarri direnez interesgarri ikusi da txosten honetan txertatzea.

Hemen aurkezten diren ondorioak partzialak dira eta haunarketarako bideak ireki nahi dituzte. Oraindik bi motatako kontrastea behar dute ondorio sendo muduan hartu ahal izateko: batetik herriko eragile eta teknikariena, eta bestetik, ikerketa osotik aterako diren ondorio orokorrena.

1.2 Ikerketari sarrera

Euskal Herrian 80. hamarkadatik egiten dira **kaleetako hizkuntza-erabilera neurketak**, eta datu horiek euskarak gure herritako kaleetan duen presentzia kuantitatiboki azaltzen dute. Neurketak 4-5 urtetako maiztasunarekin burutu dira eta 30 urtetik gorako ibilbidea erakusten dute. Hiru hamarkada horietan hizkuntzaren egoerak aldaketa handiak jasan ditu, eta neurketak burutu diren espazioek, gure kaleak alegia, ere. Kaleetan eman diren aldaketak ulertzeko beste faktore asko izan behar dira kontutan, eskala ezberdinetakoak eta diziplina askotarikoak direnak.

Gure lurraldea antolatzeko ezarri den hiri ereduak eragina izan du, beste faktore globalen artean, Euskal Herriko kaleetan, espazio publikoetan, eman diren aldaketetan; eta, bestalde, aldaketa horiek gure eguneroko bizitza ohituretan eragin dute: nola mugitzen garen, nola elkar zaintzen dugun, nolako elkarbizitza dugun, etab. **Kaleen forma, funtzionamendua eta izaera aldatzeak, beraz, gure harremanetan eta hizkuntza ohituretan ere eragina izan du**. Faktore soziodemografikoek hirigintzarekin duten erlazioan sakonduz, hirien, herrien eta auzoen bilakaera euskararen erabilerarekin eta haren bilakaerarekin erlazioa daiteke.

Hirigintza-ereduak erlazio sozialetan duen eragina aztertzen duten ikerketak geroz eta ohikoagoak dira, lortzen diren ondorioak gizartean dituen onurak nabariak direlako. Ildo

honetako Ikerketa gehiago egiten dira beste herrialde batzuetan, baina nazioartean ere oso urriak dira hirigintza-ereduek hizkuntzen erabilerarekin duten lotura aztertzen duten ikerketak.

Nazio Batuen erakundeak ezarritako, eta, ondoren, herrialde bakoitzak moldatutako Garapen Jasangarrirako Helburuen artean hamaikagarrenak **hiri eta komunitate jasangarriak** lortzea du helburu. Helburu horien artean, herritar guztiek oinarritzko zerbitzu eta garraio bide egokiak eskuratu ahal izatea eta **kultura-ondarea zaindu** beharra aurkitzen dira, besteak beste, eta, helburu horri erantzunez, ikerketa honek hirigintzaren eta euskararen arteko erlazioa nola eman den eta nola eraldatu den ulertzearekin batera, etorkizunerako estrategia egonkorrak zehazten lagun dezake.

Gure herriek eta hiriek hiru hamarkadetan jasan dituzten aldaketak eta gizartean horrek izan duen eragina aztertzeak eta ulertzeak GJH-aren 11. helburura hurbiltzeaz gain, beste aplikazio ugari izan ditzake, horien artean **Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak** gauzatzerakoan. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren (ELE) xedea ondokoa da: *Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta plan pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea*. Horrez gain, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea ere bai.

Gaur egun, Euskal autonomia erkidegoko udalerriek sustatutako plan eta proiektuek euskararen erabileran eragina izango dutela aurreikusten bada, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar dute. Proiektu horiek euskararen erabileran izango duten eragina ebaluatu ahal izateko, azken hamarkadetan egin diren aldaketek (planek eta proiektuek zuzenduta) izan duten eragina jakitea ezinbestekoa da. Era berean, eragile esanguratsuenenak identifikatu ahal izateko eta etorkizuneko planetan zuhurtziaz jokatzeko ere funtsezkoa da.

Ebaluazio honen ondorio gisa, neurri zuzentzaileak proposatzen dira. Neurri zuzentzaile hauek espazio publikoaren izaeraren inguruko proposamenak ere izan daitezke eta ikerketa honek aspektu honetan ekarpenak egiteko aukera emango du. Espazio publikoek dituzten zenbait ezaugarri eta bilakaera, euskararen erabilera datuekin gurutzatuko baitira.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak ondokoa ondorioztatu du: *egin diren azterketa guztiek eta udalerri euskaldunetan hizkuntzaren normalizazioan aritu direnen esperientziek zerbait erakutsi badute, honakoa izan da: hizkuntza politikatik kanpo dauden politikak dira hizkuntzan gehien eragiten duten politikak*.

Gure lurraldeak jasan dituen aldaketak gizartean, komunitatean, harremanetan, eta ondorioz, hizkuntzen erabileran zein eragina izan duen ulertzen lagunduko digu ikerketa-lan honek. Gainera, disziplina ezberdinetako taldeen elkarlanak ikuspegi aberatsagoa eskainiko digu, ez bairik gabe.

2. PROIEKTUAREN HIPOTESIA ETA HELBURUAK

Gure lurraldea antolatzeko ezarri den hiri ereduak eragina izan du, beste faktore globalen artean, Euskal Herriko kaleetan, espazio publikoetan, eman diren aldaketetan. Era berean, aldaketa horiek gure eguneroko bizitza ohituretan eragin dute, gure mugitzeko, elkar zaintzeko eta elkarrekin erlazionatzeko moduetan eraginez. Lefebvrek¹ esan bezala, sustatzaileen hirigintza gailendu da: gentrifikazio eta turistifikazio prozesuen bidez, espazio publikoaren beraren desberdintasunean, zatiketan, erosotasunean eta kontsumoan oinarritzen den hirigintza eta hiri-diseinua, alegia. Feminismotik argi azaldu zaigun moduan: eguneroko bizitza ez da kontuan hartu eta giza zaintzarako beharrak arbuia egin dira. Beraz, azken urteetan, gure kaleak eta plazak elkar zaintzarako baino, kontsumo eta produkzio logiketarako prestatu dira eta, ondorioz, kalean lanean ari den zaintzaileari espazio publikoaren erabilera asko baldintzatu zaio².

Ikuspegi honi erantzunez, genero ikuspuntutik eginiko hirigintza lehenestea dagokigu: “Genero ikuspuntutik eginiko hirigintza ez da izango emakumeentzako hirigintza, baizik eta emakumeari egotzi zaizkion rolak, egun gizonak ere betetzen dituenak, kontuan hartutako diseinu eta antolaketa bat proposatuko duen hirigintza da. Hirigintza modu horrek gizakiaren bizitza garai guztiak kontuan izaten ditu, haurtzarotik zahartzarora, eta ez da lan produktibo garaian den gizarte zatiarentzat soilik pentsatzen, egundaino gehienetan egin den bezala”³. Ikuspegi horretan aitzindaria Jane Jacobs izan zen, zeinak 60. hamarkada amaieran, ikuspuntu mekanizistatik egiten ari ziren hirien aldaketa sakonei aurre egin zien.⁴ Kaleetako dendak, auzoko jendearen joan etorriak, elkar ezagutza eta umeak jolasean zeuden kaleak mantentzea aldarrikatzen zuen. Hau da, “hiri-bizitasuna” aldarrikatzen zuen.

Testuinguru horretan, pertsonen arteko harreman moduak eta hizkuntzaren erabilera kontuan izanik ondorengo **ikerketa galdera** sortzen da: Nola aldatu da kalea azken 30 urteetan? Edo zehatzago esanda;

Hirigintzak eta lurralde antolaketako erabakiek, euskararen kale-erabileran zertan eta nola eragiten dute?

Ikerketa galdera honi marko teoriko zehatz batetik erantzuten zaio, honetarako 2022. urtean Bat soziolinguistika aldizkarian aurkeztu zen artikulua ematen dio ikerketa honi hastapeneko marko teorikoa eta beretik eratorrita zehazten da lanerako hipotesia, ikuspuntu produktiboek eta erreproduktiboek hirigintza eta lurralde antolamenduan izan duten eragin ezberdina erdigunean jarritz.

Honela, ikerketa honek ondorengo **hipotesia** du oinarri:

¹ LEFEBVRE, Henri (1968). *Le droit à la ville*. Paris: Anthropos.

² VALDIVIA, Blanca (2018). “*Del urbanismo androcéntrico a la ciudad cuidadora*”, in *Hábitat y sociedad* 11, 65-84.

³ TELLERIA ANDUEZA, Koldo (2012). “Eskalatxikioerabakiak, aldaketahandiak – Udalenegitekoa” in VV.AA. *Hirigintzabarnerratzailea*. Kaleekbadutegeneroa. Vitoria-Gasteiz Etxebizitza, HerriLan eta Garraio Saila _ EuskoJaurlaritzarenArgitalpenZerbitzu Nagusia

⁴ JACOBS, Jane (1961). *Muerte y vida de las grandes ciudades*. Capitán Swing Libros, 2011.

Zaintzak erdigunean jartzen ez dituen hirigintza-ereduak eragin mugatzailea du hizkuntza gutxituen kale-erabileran.

Ondorioz, ikerketaren **helburu nagusia** ikerketa galdera erantzutea izango da:

Hirigintzak eta lurralde antolaketako erabakiek, euskararen kale-erabileran zertan eta nola eragiten duten ulertzea. Horrez gain zenbait helburu partzial ere ezarri dira, ikerketa gauzatzen den bitartean lortzea interesgarria eta beharrezkoa ikusten baita.

Era berean, honako **helburu partzialei** ere erantzun nahi zaie:

- Euskararen kale-erabilera sustatzeko hirigintza eta lurralde antolamendutik zer egin daitekeen ulertzea.
- Beste testuinguru batzuetan aplikagarria izan daitekeen ikerketa metodologia sortzea.
- Metodologia horren aplikaziorako adierazle egokiak identifikatzea eta, ondorioz, datu-bilketan egon daitezkeen gabeziak identifikatzea.
- “Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa [ELE]” tresna hobetzeko ekarpenak egitea.
- Errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, hirigintza-zaintzaile baterako ekarpenak egitea.
- Pertsonen espazio publikoa nola erabiltzen duten eta erabilera hori zeren araberakoa den ulertzea.

3. MARKO TEORIKOA

Azken hamarkadetan Soziolinguistikako klusterrak burututako hizkuntzaren erabileraren kale neurketen helburua gure kaleetan zein hizkuntza erabiltzen den era kuantitatibo batean neurtzea izan bada ere, lortutako datuek 30 urtetan zehar jaso izanak hizkuntzaren erabileraren bilakaera aztertzeke balio izan du ere. Informazio numeriko hori oinarri hartuta, denboran zehar espazio jakin batean ibili den jende kopurua ere neurtu daiteke. Espazioaren aldaketen eta giza harremanen arteko erlazioa bilatzea da ikerketa honen helburua, pertsona horien **harremanak hizkuntzaren erabilerarekin lotu** ahal izateko. Erlazio konplexu horiek ulertzeke ezinbestekoa da disziplina ezberdinen parte hartzea, eragin handien izango duten aldagaiak bilatzeko.

Euskararen aldeko politikek, hirigintza arloko planek eta datu soziodemografiko-ekonomikoen bilketek ibilbide ezberdinak izan ohi dituzte, eta, ikerketa honen bidez, aldagai horien guztien arteko harremana eta eragina erakutsi nahi da. Beraz, **ikerketa honek hizkuntzaren erabilera eta hirigintza-ereduak bateratzen dituen metodo bat garatzen du.**

Orain arteko hirigintzaren eta euskararen erabileraren erlazioa lantzen duen ikerketa arloa marko teorikoan, eta sakondu gabe, garatu da; eta nazioarte mailan ere, hizkuntza gutxituen eta espazioaren eraldaketaren arteko harremanari buruzko ikerketarik ez da gauzatu. Ikerketa honek lurralde mailan eman diren aldaketa fisikoak aztertu nahi ditu eta horiek gizarte-konportamenduan izan duten eraginak ulertu; ondoren, eskalaz gerturatzen joateko: eskualdetara, hirietara, herrietara, auzoetara eta kaleetara iritsi arte. Aldaketa fisiko horiek era kualitatibo batean neurtzeaz gain, era kuantitatibo batean neurtzea izango dugu helburu, modu horretara, aurretik ditugun datu numerikoekin kontrastatu ahal izateko.

Lortu diren aldagai horiek aldaketa fisikoak erakustez gain, hiri-bizitasuna neurtzeko baliagarriak dira: pertsonen arteko harreman motak, komunitatearen indartzea eta bizi-kalitatea bezalako kontzeptuekin erlazioa dutenak. Espazioen bilakaerak aztertzen direnean hiri eredua kontutan izango da, sistema produktibo edo erreproduktibo bati erantzuten dion azertu, eta, horren ondorioz, zaintza-lanak diseinuaren edo erabilpenaren zein mailatan geratzen diren neurtuko da.

Badira aurrekariak testuinguru honetan. Gero eta ohikoagoak dira hirigintzaren arloan, **feminismoa** ardatz hartuta, **genero ikuspegia** eta **zaintzen gaia** aldarrikatuz eta ikertuz egindakoak. Horrela, ekarpen nabariak egin dituzte Collectiu Punt6⁵ taldeko kideek (2014. Col·lectiuPunt 6 Adriana Ciocoletto) Gure lurraldera etorrira, aipagarria da Hiria Kolektiboa taldeko kideek egindako ekarpena, adibidez, estatu mailan **hiri debekatuaren metodoa** zabaltzeko erreferente izan den liburuarekin: “Hiri analisirako manuala: generoa eta eguneroko bizitza” liburua⁶. Dunak taldeak, aldiz, pauso interesgarriak eman ditu ikuspuntu **ekofeminista** ardatz hartuta⁷, ikerketa honen oinarri bezala hartu daitezkeenak.

Era berean, interesgarriak da, **GIS teknologia** eta **datuen zientzia** baliatuz Gaindegia behategitik ikuspegi sozioekonomiko baten azterketatik sustatutako zenbait lan, tartean, “Euskal hiriburu-erakundearen auzoen bizigarritasun-neurgailua”⁸ edota EHUKO CAVIAR⁹ ikerketa taldean garatutako beste zenbait ikerketa: “RISAU. Hacia la ciudadsaludable”¹⁰, “DINUR. Dinámicas urbanas”...

Hirigintza eta soziolinguistika elkartzea berritzailea da. Orain arte, ikerketa soziolinguistikoetan zuzenean hizkuntzarekin loturiko adierazleak (hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza-erabilera...) soilik hartu baitira kontutan. Aintzat hartuta **hizkuntza politikatik kanpo dauden politikak direla hizkuntzan gehien eragiten dutenak**, hirigintzaren eragina aztertzea ezinbestekotzat har daiteke hizkuntza gutxituen etorkizuneko biziberritzea lortu nahi bada.

4. LANTALDEA

Proposamen hau aurrera eramateko, funtsezkoa da **Soziolinguistika Klusterraren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Botoi Ikerketa Taldearen (BIT) elkarlana**. EHUKO ikerketa taldeak garatu eta gidatuko du ikerketaren prozesu metodologikoa, hirigintzaren eta zaintzen ikuspegia ardatzean jarrita baina funtsezkoa izango da, eraberean, Soziolinguistika Klusterreko kideen

⁵Honako estekak eskuragarri Punt6 taldeko enzenbaitargitalpen:

<https://www.punt6.org/es/books/espacios-para-la-vida-cotidiana/>

⁶Hiria Kolektiboa, “Hiri analisirako manuala: generoa eta eguneroko bizitza = Manual de análisis urbano: género y vida cotidiana” ISBN:978-84-457-3046-1 - Vitoria-Gasteiz 2010 -

https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/libro/l_047617_0001_0001/es_def/index.shtml

⁷“Egunerokobizitzarako hirigintza. Tolosako azterketateknika” DUNAK Taldea 2019

⁸Ikushemen: https://auzoak.eus/sites/auzoak.eus/files/attachments/Gaindegia_euskal-hiriburu-erakundearen-auzoen-bizigarritasun-neurgailua.pdf

⁹<https://caviarehu.eus/>

¹⁰Ikus hemen: <https://atlasak.datuak.net/risau/>

partehartzea. Hauek, euskararen kale erabileraren datuak eskuragarri jartzeaz gain, ikerketan soziolinguistikaren ikuspegia txertatzen lagunduko dute.

Botoi Ikerketa Taldea (BIT) - EHU

Ikerketarako lantalde nagusia **Botoi Ikerketa Taldea (BIT)** osatzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko **Arkitektura Saileko irakasle eta ikertzaileek osatzen dute**. Honako gaiak dira bereziki aipagarriak proiektu honetan izango duten partehartzearen harira:

Proiektuko **ikertzaile burua** (IP) BIT taldeko buru den **Koldo Telleria Andueza** arkitekto doktorea da: **hirigintzaren** arloan eskarmentu sakona du, bai profesio liberalari lotuta zein akademiari lotutako ibilbidean. Azpimarragarria da **hirigintza** eta **generoa** edo/eta **tokiko kulturarekiko** uztarketan egin duen lana. Lan lerro honetan 2002 urtetik 2022 urtera eginiko praktika espazial parte-hartzaileetan jasotako ikasketak dira oinarri bere tesian: **“Elkarbizitzarako espazioak trantsizioan. Euskararen lurraldean parte-hartzea oinarri duten praktika kokatuetatik ekarpenak”**. Aztertutako prozesuak Hiria Kolektiboa eta Dunak taldearekin eginga izan dira eta bertan sartu dira unibertsitateko dozentziatik egin diren ikerketa parte-hartzaileka ere. Lan kolektibo guztiaren teorizaziotik eratorritako ikasketak batuz osatutako lana da tesi hau, Era berean, funtsezkoa izango da bere ekarpena **hirigintzaren eta euskararen alorraren arteko zubilanean** eman dituen pausoengatik. Zentzu horretan, eta proiektu honen asmoei dagokienez, adierazgarria da **Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioan (ELE)** aditu tituluaren graduondoaren zuzendaria eta irakaslea dela 2020tik. Azkenik, eragile eta erakunde ezberdinekin **lankidetzaren prozesu anitzetan** aritu izanagatik asko eman dakioke proiektuari. Lankidetzaren esperientziarik, azpimarragarria da **nazioarteko proiektuetan** izan duen parte-hartzea.

Bestalde, **Irati Otamendi Irizar** arituko da BIT taldeko ikertzaile gisa. Iratiri dagokionez (arkitekto doktorea), ekarpen nagusia bere **ikertzaile ibilbideari** lotutakoa izango da. Zentzu horretan, aipagarria da **hiri jasangarrien eta tokiko garapenarekin** erlazionatuta —**ZTBP Euskadi 2030**-en harira— egin duen jarduna. Bestalde, ikerketa **metodologiaren** ikuspegitik emankorra izan daiteke bere parte-hartzea.

BIT taldearen osaketan **Ainhua Guerras Alfonsoren** lankidetzaren ezinbestekoa izan da, batik bat Parte-hartze prozesurako eta GIS tresnaren bidez datuen irudikapenak lortzeko. Bera Arkitektoa (2012, EHU) eta IVAPeko “Hirigintza eta lurralde-ikasketak ikastaroa” burututakoa (2018-2019. EVETU. IVAP). Profesio liberean genero, hirigintza eta parte-hartze proiektuetan jardun du. Besteak beste, ikerketa honetan adibide bezala erabilitako **“Eguneroko bizitzarako hirigintza. Tolosako azterketa tekniko”** proiektuan. Ikerketa honetan, estatistika eta geolokalizazioa elkartzen dituen lanetan arituko da.

Azkenik eta lurralde mailako azterketan eta Kluster analisain sakontzeko, **Oihana Santolaria del Campo** arkitekto doktorea da taldekide ere. Bere parte-hartzea interesgarria da bere ikertzaile esperientziagatik zein hirigintza-arloan egindako ibilbideagatik. Zentzu horretan, aipagarria da hirien bilakaeraren azterketan egindako jarduna (tesia: Evolución Histórico-constructiva de los edificios residenciales del casco histórico de Hernani), zeinetan egoitza-eraikinen azterketa bat egiten duen Erdi Aroan sortu zirenetik gaur egunera arte, horrek espazio publikoan izan duen eragina landuaz. Irakaskuntza eta ikerketa lanez gain, lanbidea era liberean egiten du eta eskarmentua du erakunde zein administrazio publikoekin harremanetan.

Soziolinguistika Klusterra, euskara biziberritzeko ikergunea

Soziolinguistika Klusterra euskararen ikergune zientifikoa da; ezagutza soziolinguistikoa sortu eta kudeatzen duena, euskara biziberritzeko prozesuaren erronka, interes eta beharrei erantzuteko. Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz. Metodo zientifikoa oinarrituta zorroztasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio. Osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan. Euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoa eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabaltzen ditu gardentasunez.

5. METODOA

Esan bezala, hemen aurkezten den ikerketarako metodoa Botoi Ikerketa Taldeak [UPV/EHU], Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean abiatutako lan zabalago baten testuinguruan kokatzen da. Horrela, lan horretan **Hirigintzak eta lurralde antolaketako erabakiek, euskararen kale-erabileran zertan eta nola eragiten duten ulertzeko metodologia finkatzea** proposatzen da. Euskararen kale-erabileraren eta hirigintza eta lurralde antolaketaren arteko harremanak ulertu eta testuinguru zabalago eta bestelakoetan antzeko ikerketa garatzeko **irizpide anitzeko metodologia** finkatu da. Azken hamarkadetako bilakaera aintzat hartuta, **etorkizunerako ildo eta aukerak aurreikusteko gakoak identifikatzea** espero da.

Hirigintzak euskararen kale erabileran duen eragina aztertzeko **metodoaren oinarriak finkatu** dira lehenik. Horretarako, metodoaren hurbilketa teoriko baten ondoren, Euskal Herri mailako lurralde azterketa egin da. Irakurketa honek, herri ertainak ikertzearen interesa ikusarazi du eta hurrengo pausoetan definitzeko, bi herri ertain pilotu aukeratu dira (Zornotza eta Zarautz). Ikerketa kasu hauek herri mailan eta eskala xehetuagoan, auzo mailan, aztertuta, tokiko emaitzak lortu dira. Herri pilotu hauekin osatutako bidea **beste herri batzuetan errepikatu da**, —datu kontrastagarri gehiago eskuratuz— Tolosan, Hernanin eta Gernikan. Honela **azken metodoa finkatzea** lortu da.

Ikerketa garatzeko funtsezkoa izan da Botoi Ikerketa Taldearen (EHU/UPV) [aurrerantzean BIT (EHU/UPV), eta Soziolinguistika Klusterraren arteko elkarlana. Horrela, eskema metodologiko orokorra honakoa izan da: **Soziolinguistika Klusterrak azken 30 urteetan egindako neurketetatik eratorritako datuak izango dira abiapuntu** (hasierako neurketak 4 urteko maiztasunarekin eginak izan ziren eta azken edizioetan 5 urteko maiztasuna izan dute). Bestalde, BIT (EHU/UPV)-ek **hirigintzaren ikuspuntutik gertatutako bilakaeraren analisia** egiteko oinarriak finkatu ditu. Horrela, **Parte hartzean oinarritutako metodologia izan da oinarri**. Tokian tokiko gizartearen antolaketa ulertu da, herri bakoitzean auzoen antolaketa nola bizi duten herritarrek kokatu da. Baita


espazioen erabilera zein den ere. Ondoren, hizkuntza zein hirigintza eremuetatik eratorritako **datu kualitatibo eta kuantitatiboen gurutzaketa** egin da. Horretarako, **GIS tresna oinarri** hartu da, modu bisualean datu gurutzaketak gauzatzea baimentzen du tresna honek.

Metodoak aurrez **analisirako adierazleak** finkatzea eskatu du. Adierazle hauek proiektukide ezberdinen arteko lanketa eta haunarketa ugariren ondoren etorri dira eta marko teorikoari lotuta egon dira. Elkarlan modu bera erabili da, behin azterketa garatu eta datuen irudikatzea eginda, BIT (EHU/UPV) eta Soziolinguistika Klusterraren artean **ondorioak** atera ahal izateko.

Zehaztu diren eta neurtu diren aspektu guztiak gurutzatu dira euskararen kale erabilera datuekin, eta beraien arteko konbinaketak ere begiratu dira. Gurutzaketa hau gauzatzen herri ezberdinetan ematen diren antzeko egoerak sortzen dituzten joerak antzematea espero da hemendik aurrera. Era berean, herrietan balioztatu diren datuen azpimarratzea edo datu hauen singularitateak kanporatu nahi dira orain. Honela herriz herriko errealtatea herritarrekin kontrastatu nahi da.

Azkenik, metodoak herri mailako ondorio partikularrez gain, orotara ikertu diren herri guztietako auzo guztien datuak jarriko ditu hartu emanetan. Honetarako **Kluster analisia erabiliko da (SPSS)**. Aztertu diren 5 herrietako auzo ezberdinen datuen gurutzaketatik ateratako ondorioak dira metodo honek bilatzen dituen emaitza nagusiak, aurreko atalean finkatutako helburuekin bat etorriz.

1. irudia: Ikerketa garatzeko elkarlanaren eskema metodologiko orokorra.



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako irudia

Ikerketaren dimentsio osoko emaitzak jaso ahal izateko 40 auzoko azterketa gutxieneko bat izatea beharrezkoa da. Hau dela eta 5 herrietan oinarritzko azterketa hauek egin ondoren eta herri bakoitzak banaka dituen joerak antzemandak, aztertutako herrietako auzo guztien irakurketa bateratua ahalbidetuko du analis estatistikoak. Bertatik antzeko errealtateetan ematen diren egoerak plazaratuko dira eta baita hizkuntza erabilera antzeko datuek hiri errealtate


ezberdinekin duten lotura ere erakutsiko digute. Finean aztertu diren datu **espazial ororen** gurutzaketa bilatuko da, beti ere euskararen kale erabilera datuekin alderatzeko.

5.1 Lan prozedura

Metodoaren definiziorako, pauso ezberdinak eman dira. Hurbilketa teoriko baten ondoren, Euskal Herri mailako lurralde azterketa egin da. Irakurketa honek, herri ertainak ikertzearen interesa ikusarazi du. Azterketa hauek bi fasetan egin dira. Lehen fasean metodoa frogan jartzeko eta modu pilotu betean, 2023. Urtean Zornotza eta Zarautz. Eta 2024. urtean azterketa metodo finduta, Zornotzaren berrikusketa batzuk egin dira eta Tolosa, Hernani eta Gernika aztertu dira. Ikerketa kasu hauek herri mailan eta eskala xehetuagoan, auzo mailan, aztertuta, tokiko emaitzak lortu dira. Bost herri hauekin herriak aztertzeko metodoa finkatu da eta ikerketa orokorrerako 5 herri hauek nahikoak badira ere, zenbait eta herri gehiago aztertu ikerketa osoak datu esanguratsu eta interesgarriagoak eskainiko ditu.

Metodoaren aplikazioa ikerketaren ondorioak atera ahal izateko, aztertutako 5 herrietako auzoen datuekin lortuko da. Honetarako, Kluster analisi bidez, euskara erabilera datuak herri guztietako auzoetan lortutako datu denekin gurutzatuko dira eta SPSS programarekin aztertuko dira.

2. irudia: Ikerketa-metodoaren eskema orokorra.




Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako irudia

5.2 Lurralde mailako analisia

Lurralde mailako analisian errealitate sozioekonomikoa, urbanistikoa eta soziolinguistikoa hartu dira aintzat. Horrela, aldagai ezberdinak grafikoki alderatuz, euskal herriko —datu batzuk EAE mailan— udalerrri ezberdinekin duten errealitatea eta azken 60-70 urteetan izan duten bilakaera ezagutzera hurbildu gara. Biztanleria, mugikortasun azpiegiturak, DEGURBA sailkapena, ekipamenduen banaketa, komertzio txiki eta handiaren arteko proportzioa, turismoa, etab. izan

dira aztertu diren gaietako batzuk. Horiek, era berean, euskararen kale erabilera datuekin (egungoa zein bilakaera) alderatu dira.

3. irudia: Lurralde mailako analisiko adibideak.



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Esan bezala, azken helburua lurralde osoko errealitate soziolinguistikoaren eta urbanistikoaren arteko harremanak eta elkarrenerginak ulertzea izanik, lurraldearen egituraketan funtsezko izaera duten hiri ertainen [20.000 biztanle ingurukoak] azterketan zentratzea erabaki da. Soziolinguistika Klusterrak egiten dituen kale neurketen datuen sendotasuna eta lurraldeko ikuspegia aintzat hartuta, lehen herri pilotu modura Zornotza eta Zarautz aukeratu dira. Hauen azterketa baliatu da metodoaren pausoak finkatzeko. Eta ondoren Tolosa, Hernani eta Gernika ere aztertu dira.

5.3 Herri mailako analisia

Herri mailako analisisian oinarri parte hartzailea izan duen ikerketa bat egin da, honetarako lehen lana datu bilketa sakona egitea izan da. Hastapen honetan, funtsezkoa izan da Udaleko sail ezberdinen laguntza. Jasotako datuekin, herri mailako mapeo ezberdinak gauzatu dira eta funtseak bi datu mota jaso dira, **Ikerketa parte hartzailetik eratorriak** eta **ikerketa teknikotik eratorriak**. Ondoren bi atal hauek nola gauzatu diren eta erabili diren metodologia eta teknikak zehaztuko dira.

5.3.1. Ikerketa parte-hartzailea

Lehenik ikerketa parte hartzailearen sarrera modura, kokapen orokorra egingo da herri bateko adibideak erabailiko direlarik ikerketaren atal honetan lortu nahi diren emaitzak. ondoren pausuz pausu aplikatu den metodologia zehatza azalduko da.

5.3.1.1. Sarrera modura

Ikerketa honetan baliatu den ikerketa unitatea auzoa denez, auzoen definizioa herritarren parte hartzearen bidez egiten da. Horretarako, zenbait herritarrekin (genero, adin eta profil ezberdinetakoak) lan-saioak egiten dira. Lan-saio horietan, auzoen definizioaz gain, herritarren egunerokotasuneko ohituren berri ematen duten informazioa eskatzen zaie: zeintzuk diren euren ohiturazko oinezko ibilbideak, non egiten dituzten zenbait ekintza (lan, aisia, erosketak...) etab. Horrela, aurrez egindako mapeoa osatu eta kontrastatzen da, herriaren funtzionamenduaren irakurketa konplexuagoa eta osoagoa eskuratuz.

4. irudia: Zarautz: herritarrek emandako datuak, mapeatuta




Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

5. irudia: Zarautz: 2020 urteko datuak, mapeatuta



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

6. irudia: Zarautz: herritarrek definitutako auzoak eta ikerketarako auzo definitiboak



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

5.3.1.2. Herriaren izaera herritarren eskutik, metodologia zehatza

Herrietako errealitatea biztanleen eskutik ezagutu ahal izateko, bertan aktiboki parte hartzen dutenen pertsonen profil ezberdinak bilatu behar dira beraiekin bildu eta ikerketarako lagungarri izan daitekeen informazioa lortu eta partekatze helburuarekin. Horretarako, udal langileekin harremanetan jarri eta euskararekin harremandun teknikariaren laguntzaz baliatuta herriko hainbat erakundetan parte hartzen duten adin ezberdinetako pertsonen zerrenda bat gauzatzen da, eta egun bat hitzartzen da horiekin biltzeko ikerketaren abiapuntua izango dena.

7. irudia: Saioetako Argazkiak Hernanin, Tolosan eta Gernikan



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldearen irudiak

Saioaren hasieran Soziolinguistikako Klusterreko eta Botoi Ikerketa taldeko kideek ikerketaren aurkezpen labur bat burutzen dute Ikerketaren nondik norakoak eta saioaren helburua zein den azaltzeko. Hasiera batean herritarrek hirigintzaren ezagutzarekin duten ezjakintasunaz kezkatuta agertzen dira btzuetan. Zentzu horretan, saioaren helburua haien eguneroko bizimodua eta herriaren aldaketak horretan izan duen eragina ulertzea dela azaltzen zaie kezka hori arintzeko.

Saioa lau ataletan banatzen da, atal batzuk banaka egitekoak direnak eta beste batzuk talde txikitan edo guztien artean:

1. ATALA: beroketa ariketa

Atal horren helburua herritarrek egin behar dituzten ariketekin hasteko berotze-lan erreflexibo bat burutzea da, non bakoitzak bere profila adierazteaz gain (datu estatistikoak: adina, sexua, hizkuntzaren ezagutza, zaintza-lanak, etab.), egunerokotasunean zein jarduera burutzen dituen adierazi behar duen. Jarduera horiek ordularian kokatu behar dituzte, asteguna edo asteburua den zehaztuz, eta zein ordutan burutzen dituzten adieraziz. Ekintza horien zerrendatzeak lotura

zuzena du hurrengo atalarekin, izan ere, burutzen dituzten jarduerak non eta nola burutzen dituzten ulertzea da saio horietako helburuetako bat. 8. Irudiko fitxa ematen zaie bete dezaten:

2. ATALA: **non burutzen ditut nire jarduerak-ibilbideak**

Bigarren atalak deskribatutako jarduera horiek espazioan kokatzea du helburua, eta horretarako, herriko plano bat banatzen zaie, eta marrazki bidez edo gometxa batekin adierazi behar dituzte zeintzuk dira beraien egunerokotasunean burutzen dituzten ibilbideak eta non bizi diren (ikusk 9 irudia).

3. ATALA: **-zeintzuk dira zure herriko auzoak** **- zein espaziotan ibiltzen dira herritarrak eta nola**

Hirugarren atalean, taldeka identifikatu behar dituzte espazio ezberdinak, aurreko atalean erabilitako plano berdinean. Horretarako, aurrez, identifikatzea eskatzen zaien espazio eta ibilbide mota ezberdinetako definizioak azaltzen dira. Ondorengo galderei erantzutea eskatzen zaie:

- Zeintzuk dira auzoak? Borobildu eta izendatu behar dituzte.
 - Zein espaziotan egoten dira herritarrak? herri plazak, auzo plazak eta komunitate plazak identifikatu behar dituzte eta kolore ezberdinetako gometxeekin adierazi.
 - Zeintzuk dira oinezkoen ibilbideak? lehen mailakoak eta bigarren mailako ibilbideak identifikatu eta kolore ezberdinetako errotulagailuekin irudikatu behar dituzte.
- Erabilitako grafia zein izan behar duen aurrez azaltzen zaie, 10. Irudian azaltzen da nola.

4. ATALA: **guztion arteko erreflexioa-ondorioak**

Azken atalean hitzordura hurbildutako herritar guztiak mahaiaren inguruan bildu eta ordura arte hitz egindakoa kontrastatzea du helburua, eta, era horretara, ondorio amankomun batzuk lortzea.

Mahai inguru horretan euskararen erabileraren aldagaia sartzen da, eta hizkuntzaren presentziaren gaineko egungo diagnostiko bat egiten saiatzen. Helburu nagusia euskara zenbat eta non hitz egiten den identifikatzea, eta denboran zehar izan duen aldaketaren zergatia ulertzea da.

Horrela, espazioa, hirigintza, herritarrak, jarduerak, ohiturak eta euskararen erabileraren arteko harremanak bilatzen dira, ikerketan erabilitako hainbat datuekin kontrastatu ahal izateko.

8. irudia: Banatutako fitxaren eredu

HIRIGINTZA ETA EUSKARA IKERKETA

Hirigintzaren eragina euskararen kale-erabileran
 UPV/EHUko Botoi ikerketa taldeak Soziolinguistika
 Klusterra-rekin elkarlanean egiten ari garen ikerketa bat da.
 Jasotako iritziak pribatuak izango dira.

Datuak:

1. Adina	_____
2. Sexua	_____
3. Hizkuntza-gaitasuna ¹	_____
4. Lehen hizkuntza ²	_____
5. Etxeko hizkuntza ³	_____
6. Zein auzotan bizi zara	_____
7. Zein auzotan/herritan lan egiten duzu	_____
8. Zaintzen duzu norbait	_____
9. Elkarteren batekoa zara	_____

Zein? _____

Beroketa ariketa:

Zer egiten dut egunean zehar? Erabili beheko erlojuak asteguneko eta asteburuko ohiko ekintzak azaltzeko:



aste barruan



aste buruan




15 min





Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

9. irudia: Banatu zitzaien herriko ortoargazkia (Hernani)



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

10. irudia: Espazio eta ibilbide ezberdinak irudikatzeko azalpenaren irudia



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

11. irudia: Espazio eta eskala ezberdinetako adibideak hertaniko saioan



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

5.3.2. Ikerketa parte-hartzaitetik ikerketa teknikora

Ikerketa honen helburu orokorrak herri bakoitzaren eremutik gaindikoak direnez, herritarrengandik jasotako informazioa ikerketa teknikoan baliatu ahal izateko aurrez finkatutako irizpide batzuk aplikatuta landu eta bateratu beharra dago.

Alde batetik, ikerketarako oinarri izango diren **auzoen** mugak finkatzeko, hasteko, herritar guztien artean jasotako emaitzak aztertu eta lehen bateratze bat egiten da. Ondoren, aldiz, azken bateratze tekniko egiten dira zenbait gai aintzat hartuta: hiri-ehundura ezberdinen arteko mugak, elkarren ondoan dauden auzoen mugaketa lerro bakar batez izatea, etab. Bestetik, datuen fidagarritasuna bermatzeko, laginak gutxieneko batzuei erantzun behar dienez, kasu batzuetan herritarrek finkatutako auzoak elkartu egiten dira ikerketarako eremu bakar osatuz. Horretarako, kontuan izaten da elkartuko diren guneek unitate bakar bezala funtzionatzea (ekipamenduak, zerbitzuak eta bestelakoak aztertuz), kokapen fisikoarekiko antzekotasunak izatea (ibilbide nagusi bera izatea, mendi-magal berean kokatua izatea...) edo garai berean eraikitako ehundurak izatea, adibidez. Era berean, herritarrek definitutako auzo bat ikerketan aintzat hartzeko, gutxieneko baldintza batzuk bete beharko ditu; Euskararen kale erabilera neurketan baliatutako ibilbidea bertatik pasatzea edo gutxienez 250 biztanle inguru izatea, adibidez.

Gernikaren kasuan, honakoak dira lanketa tekniko horren ondoren eta ikerketa teknikorako oinarri gisa hartu den kartografia:

12. irudia: Gernikako auzoak: herritarrek finkatutakoak, 1. bateratzea eta bateratze teknikoak.



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Bestalde, herritarrek finkatutako **oinezko ibilbide eta elkargune nagusiekin** ere antzeko prozesua egiten da, datuak objektibatu eta ikerketarako baliagarri izan daitezen. **Ibilbideekin**, honako hierarkiaren arabera sailkatzen dira:

- **Lehen mailakoak:** Behin baino gehiago errepikatzen diren derrigorrezko oinezko lerroak.
- **Bigarren mailakoak:** Derrigorrezko oinezko lerro bakarra marraztuta.
- **Aisialdikoak:** Aisialdirako marraztutako lerro guztiak dira.

Era berean, herritarrek ez badute oinezko fluxurik finkatu auzo batentzako, ohiko hiri-analisi teknikak baliatuz finkatzen da fluxua eta bigarren mailako bezala sailkatzen da.


Elkarguneen kasuan ere informazioa objektibatzen, bi prozesu nagusi garatzen dira. Batetik, elkargune bakoitzaren mugaketa egingo duen poligonoen marrazketa egiten da herritarren irudikapenetik abiatu eta behaketa teknikoetan aztertutakoa alderatuz. Bestetik, honako hierarekiaren arabera sailkatzen dira elkarguneak:

- Herri mailako elkarguneak: Herriko jendeak erabiltzen dituenak.
- Auzo mailako elkarguneak: Auzoko jendeak erabiltzen dituenak.
- Komunitate mailako elkarguneak: Ataritik gertu dauden "bi banku" edo antzekoak, elkargune txikiak.

Era berean, berdegune edo parke izaera duten elkarguneak, poligono kapa berri batean sartuko dira eta honela sailkatu:

- Herri mailako parkeak (berdeguneak): Herriko jendeak erabiltzen dituenak.
- Auzo mailako parkeak: Auzoko jendeak erabiltzen dituenak. (A)

13. irudia: Gernikako elkarguneak eta ibilbideak: herritarrek finkatutakoak eta bateratze teknikoa.



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

5.3.3. Ikerketa teknikoa, indikatzaileak eta kartografia

Herri mailako analisi xehatua egiteko, auzo ezberdinetako ezaugarriak zein funtzionamenduan sakondu behar da. Horregatik, modu soil batean ulertzeko, mota honetako galderei erantzuteko gai izan behar dugu:

Orokorrean: Non daude herritarrek? Nondik mugitzen dira?

Auzoarekiko: Nor bizi da bertan? Eta egunerokoan nor/zeretik dator/da?

Ikerketarako hartu diren espazio sozio-geografikoetan, auzoetan, adierazle ezberdinak sortu dira. Adierazle hauetako bakoitzak auzoak dituen ezaugarri batzuei erantzuten die eta, oinarrian, biztanleen arteko harreman eta elkarrizketak gertadaitezen hiri antolaketa eta diseinuak sor ditzakeen baldintzak/eraginak begiratzea da helburua. Auzo unitateko adierazleetako bakoitzak galdera zehatz bati erantzuten dio. Hasteko, auzoak bertako biztanleek beren bizitza auzo barnean garatzeko eskaintzen duen aukera begiratzen da:

1- Zein da bertako biztanleek **AUZOAN EGUNEROKO BIZITZA EGITEKO AUKERA?** (AEBEA)

Eguneroko bizitza honen barnean auzotarrez gain, beste herritar batzuk bai eta kanpoko pertsonak ere auzoetatik pasatzen dira. Auzoak zeharkatu egiten dituzte bai bertan bizi diren pertsonak edo auzoaz kanpokoak, beraz:

2- Zenbatekoa da pertsonak **AUZOTIK PASATZEKO AUKERA?** (APA)

Auzoko kaleetan bertakoak eta kanpokoak dabiltzanean topaketak emango dira eta topaketak emateko gaitasun hau ere begiratu beharko da:

3- Zein da **PERTSONEKIN AUZOAN TOPATZEKO AUKERA?** (PATA)

Kalean pertsonak topatzean elkarriketa ezinbesteko tresna izango dugu, baina elkarriketa hau luzatzeko eta hartu emanak sakontzeko espazioak bertan egoteko nolako aukerak eskaintzen dizkigun ezagutzea komeni zaigu:


4- Zein da **AUZOAN EGOTEKO AUKERA?** (AEA)

Azkenik, ezberdintasun nabariak izango dira auzo bakoitzak dituen biztanle eta etxebizitza motei dagokionean. Honek, kalea erabiltzeko eta hizkuntza bat edo bestea egiteko hautuan eragingo du. Eta horretarako:

5- Zein da **AUZOAREN IZAERA?** (AI) begiratu beharko dugu.

Adierazle hauek guztiak, Soziolinguistika Klusterrak eskainitako Euskararen kale erabilera neurketekin, **AUZOKOEUSKARAREN KALE ERABILERAekin**(AEKE) gurutzatuko dira. Gurutzaketa honetatik ikusi ahal izango da non, noiz eta nola eragiten duen aspektu bakoitzak euskararen kale erabileran.

14. irudia: Ikerketako adierazleen eskema kontzeptuala



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Adierazle bakoitza aldagai ezberdinez osatzen da eta hauek azken bi hamarkadetan eman dituzten neurketak biltzen dituzte, ahal izan denean behintzat. Honela, aldagai hauek egoera

finko bateko espazioaren argazkia eskainiko digute, baina baita hamarkada hauen artean eman diren aldaketena ere.

Adierazle mota ezberdinak hartuko dira kontuan. Batetik, datu estatistikoak izango ditugu eta bestetik datu espazialak. Azken hauek lortzeko udal informazioaz baliatu bagara ere, herrietan eginiko azterketa zehatzak eta behaketak ere funtsezkoak izan dira. Azpimarragarria da, auzoen egitura eta herritarren ohiturak zehazteko herriaren ezagutza eta eguneroko erabilera egiten duten herritarrekin lan saioak egiten direla. Honela datu kuantitatiboak, espazialak eta estatistikoak, parte-hartze bidez lortutako datu kualitatiboekin ere nahasten dira.

Adierazle hauek orokorrean bost unitate/neurri motekin azter ditzakegu:

1. Zenbait aldagai **dentsitate** mailaz neurtu dira. Honela, zenbait elementu dagoen biztanle kopuru batekiko edo neurri unitate batekiko begiratu da. Adibidez, lanpostu kopurua 100 biztanleko.
2. Elementu batek duen **estaldura** maila begiratu da. Honetarako “Buffer” izeneko linea imajinariok sortu dira, elementu batetik distantzia batean dagoen azalera zirkularra jasotzen dutenak. Puntu batetik 200 metroko hurbiltasunean dagoen azalerari, 200 metroko buffer bat egin dela esaten zaio. Bufferra egin ondoren auzo bakoitzeko azaleraren zati bat estaliko du eta auzoko azalera osoarekin erlazionatuz gero, auzo bateko estaldura maila lortzen da. Hau da, auzoko azalera osoarekiko, zenbatekoa da estaldura, estaldura honek Otik %100ra doa. Adibidez, lehen mailako denden estaldura auzo bakoitzeko.
3. Elementu batzuek duen **estaldura gainjarri** mailari erreparatu zaio. Honetarako elementu askoren estaldura gainjarriak kontuan izan dira. Estaldura mota honek auzo baten **erakargarritasuna** adierazten du. Hau da, auzoko azalera osoarekiko, zenbatekoa da estaldura metatuta edo pilatua, estaldura honek Otik %infinitura doa. Hau, batez ere APA adierazlean erabili da. Adibidez, denden erakargarritasuna auzo bakoitzeko.
4. **Elkar eragin eremuak**. Eremu hauek bi “Buffer” edo estaldura azalera elkartzean sortzen den eremuak dira. Konbinaketa gunen huetatik zenbatekoa da auzo estaldura begiratu da. Hauek, batez ere PATA adierazlean erabili dira. Adibidez, haur jokoak eta terrazen estaldura konbinaketak ikusi dira.
5. **Proportzioa biztanle/etxebizitza kopuruarekiko**. Zenbait dauden bai herri/ auzo osoko biztanleekiko eta herri/auzo etxebizitza guztiekiko. Adibidez, zenbait etxebizitza daude jabegoan.

Ondoren zehazten dira, Adierazleak osatzeko erabili diren aldagaiak. Horietako bakoitza nola neurtu den eta zein iturritatik jaso diren datuak ere zehazten da.


 ABEA

Auzoan Eguneroko Bizitza Egiteko Aukera

DEFINIZIOA: "Auzoak, bertako biztanleei, eguneroko bizitza bertan garatzeko eskaintzen dien aukera neurtzen da atal honetan. Auzoak oinarritzko azpiegitura publiko eta pribatuak dituen begiratuko da. Auzoan bizi eta lan egiteko aukerarik dagoen eta espazio publikoak jolasteko eta aisialdirako eskaintzen dituen aukerak begiratuko dira."

XEHETASUNAK: Osasuna eta Hezkuntza izango dira begiratuko diren oinarritzko azpiegitura publikoak. Azpiegitura pribatuetan berriz, tabernak, kafetegiak eta oinarritzko elikadura dendak begiratuko dira. Auzoan dagoen elkarte kopurua ere datu esanguratsua izango da eta neurtzeko gaitasuna dagoenean hau begiratzeko ere proposatzen da. Eguneroko bizitzaren barnean lan produktiboa auzoan egiteko aukerarik eskaintzen den ikustea ere garrantzitsua izango da.

ALDAGAI ESTATISTIKOAK:

01. ZERBITZU KOPURUA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
DENDAK				
01_01. Lehen mailako denda kopurua 100 biztanleko.	1. mailakoak (Elikagaien merkataritza, ile-apainketa, paper-dendak, farmaziak, mertzeriak eta finantza-erakundeak)	denda/ 100 biz	% (kopuruarekiko)	Eustat 2010 2022. Lurdata 2012 2022
01_02. Denda kopurua 100 biztanleko.	Guztiak	denda/ 100 biz	% (kopuruarekiko)	Eustat 2010 2022. Lurdata 2012 2022
TABERNAK ETA KAFETEGIAK				
01_03. Lehen mailako ostalaritza establezimendu kopurua 100 biztanleko.	1. mailakoak (Tabernak eta kafetegiak)	taberna/ 100 biz	% (kopuruarekiko)	Eustat 2010 2022. Lurdata 2012 2022
01_04. Ostalaritza establezimendu kopurua 100 biztanleko.	Guztiak (tabernak, kafetegiak eta jatetxeak)	taberna/ 100 biz	% (kopuruarekiko)	Eustat 2010 2022. Lurdata 2012 2022

02. LANPOSTU KOPURUA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
LANPOSTUAK				
02_01. Batez besteko enplegu kopurua 100 biztanleko.	Lanpostu kopurua guk kalkulatu behar izan dugu. Beraz, estimazio bat da. Jatorrizko datua: establezimenduak eta euren mailaketa.	Batez besteko lanpostu kopurua/ 100 biz	% (kopuruar ekiko)	Lurdat a 2016 2021
02_02. Establezimendu kopurua 100 biztanleko.		Establezime ndu kopurua/100 biz	% (kopuruar ekiko)	Lurdat a 2016 2021

ALDAGAI ESPAZIALAK:

03. ZERBITZUEN KOKAPENA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
ZERBITZUAK				
03_01. Lehen mailako denden estaldura auzo bakoitzeko.	1. mailakoak (Elikagaien merkataritza, ile-apainketa, paperdendak, farmaziak, mertzeriak eta finantza-erakundeak)	Estaldura gertutasuna _buffer 250m	% aldaketa	Eustat 2000 2010 2022
03_02. Lehen mailako ostalaritza establezimenduen estaldura auzo bakoitzeko.	1. mailakoak (Tabernak eta kafetegiak)	Estaldura gertutasuna _buffer 250m	% aldaketa	Eustat 2000 2010 2022

04. EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
EKIPAMENDUAK				
04_01-02-03-04. Lehen mailako ekipamenduen estaldura auzo bakoitzeko. Osasuna (01), Adinekoen egoitza (02), Hezkuntza (03), Administrazioa (04).	1. mailakoak (Osasuna, adinekoen egoitza, hezkuntza, administrazioa)	Estaldura gertutasuna _buffer 600m	% aldaketa	Eustat 2000 2010 2022

05. ESPAZIO PUBLIKO ELEMENTUEN ESTALDURA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
HAUR JOKOAK				
05_01. Haurrak espazio publikoan jolasteko dauden gune estaldura auzo bakoitzeko.		Estaldura gertutasuna_buffer 250 m	% aldaketa	Udala 2010-2022 edo behaketak
ELKARGUNEAK		Finkoa		
05_02. Herri, auzo, komunitate elkarguneen estaldura auzo bakoitzeko.	herri	Estaldura gertutasuna_buffer 250m		Behaketak eta elkarrizketak 2022
	auzo	Estaldura gertutasuna_buffer 250m		Behaketak eta elkarrizketak 2022
	komunitate	Estaldura gertutasuna_buffer 50m		Behaketak eta elkarrizketak 2022
05_03. Terrazen estaldura auzo bakoitzeko.		Estaldura gertutasuna_buffer 250m		Udala 2022

APA

Auzotik Pasatzeko Aukerak

DEFINIZIOA: " Auzoak hiri edo herri barnean duen kokapenagatik eta bertan eskaintzen den zerbitzuagatik auzoz kanpoko pertsonak bertaratu edo bertatik pasatzeko eskaintzen duen gaitasuna begiratu da."

XEHETASUNAK: Honetarako herri mailako oinezko fluxu nagusiak bertatik igarotzen diren begiratu da. Mugikortasunaz gain auzoak eskaintzen dituen bigarren mailako ostalaritza eta dendak duten erakarren maila neurtuko da, bai eta ekipamendu publiko eta pribatuena ere.

ALDAGAIA ESPAZIALAK:

01. FLUXUAK, Oinez pertsonen egiten duten espazioaren erabilera.

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak	Iturria
		Finkoa	
FLUXUAK			
01_01. Oinezko pertsonak herrian mugitzeko duten ohitura.	Fluxu lerroari bufferra eman eta honen okupazioa auzo azalerarekiko. Lehen maila (10m), bigarren maila (5m) eta aisia	fluxu azalera / auzo azalera	Behaketak eta elkarrizketak 2022

02. MUGIKORTASUNA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak	Iturria
		Finkoa	
OINEZKOA			
02_01. Ardatz guztiekiko metro linealak zein da oinezko ehunekoa. Auzoaren OINEZKOTASUNA	Dagoen ardatz kopurutik zenbait dira oinezkoak	oinezko ml*100/erra il ml guztiak	Geoeuskadi eta behaketak 2022

BIDEGORRI SAREA			
02_02. Bidegorri batetik 300 metroko erradiopean dagoen auzo azalera proportzioa.		Estaldura erakargarritasuna_buffer 300m	Udala 2022
GARRAIO PUBLIKOA			
02_03-04. Geltokietatik (bus eta tren) 300 metroko erradiopean dagoen hiri azalera proportzioa.		Estaldura erakargarritasuna_buffer 300m (trena 600m)	Udala 2022

03. ZERBITZUEN ESTALDURA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
ZERBITZU PRIBATUAK				
03_01. Denden erakargarritasuna auzo bakoitzeko.	Guztiak	Estaldura erakargarritasun a_buffer 250m	% aldaketa	Eustat 2000 2010 2022
03_02. Ostalaritza establezimenduen erakargarritasuna auzo bakoitzeko.	Guztiak (tabernak, kafetegiak eta jatetxeak)	Estaldura erakargarritasun a_buffer 250m	% aldaketa	Eustat 2000 2010 2022

04. EKIPAMENDUAK

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
EKIPAMENDUAK				
04_01-02-03-03-05-06. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ekipamenduak. Osasuna, Adinekoen egoitza, Hezkuntza, Administrazioa, Kultura eta Kirola.	Guztiak	Estaldura erakargarritasuna _ buffer 600m	% aldaketa	Eustat 2000 2010 2022

PATA

Pertsonekin Auzoan Topatzeko Aukerak

DEFINIZIOA: " Auzoan biziz edo auzotik pasatzean pertsonak elkarrekin topatzeko dituzten aukerak neurtuko dira atal honetan. "

XEHETASUNAK: Atal honetan beste ataletako indikatzaileen elkarketak ematen dituzten informazioa erabiliko da. Honela, haurrek jolasteko duten aukera eta helduek kontsumitzekoak dutena elkartuko dira, adibidez.

ALDAGAIK:

01. ESPAZIO PUBLIKO HARTU-EMANAK

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
HAUR JOLASAK ETA TERRAZAK				
01_01. Haur jolasak eta terrazak jasotzen dituzten auzo estaldura.	Bi erabilera hauek jasotzen dituzten espazioak identifikatu, non begi bistan batetik bestea ikusten den, gehien 20 metro, elkar ezagutzeko.	Estaldura konbinatua_ buffer 20m Estaldura gertutasuna_ buffer 250m		Udala 2022
HAUR JOLASAK ETA TABERNAK ETA KAFETEGIAK				
01_02. Taberna-kafetegi eta haur jolasak jasotzen dituzten espazioen auzo estaldura.	Bi erabilera hauek jasotzen dituzten espazioak identifikatu, non begi bistan batetik bestea ikusten den, gehien 20 metro, elkar ezagutzeko.	Estaldura konbinatua_ buffer 20m Estaldura gertutasuna_ buffer 250m	aldaketa %	Udala 2010 2022. Eustat 2010 2022
HAUR JOLASAK ETA EGUNEROKO KOMERTZIOA				
01_03. Haur jolasak eta eguneroko komertzioaren gertutasuna. Auzo estaldura.	Haurrak jolasean dauden bitartean eguneroko erosketak egin ahal izatea. Parkean dagoen norbaiten zaintzapean bitartean, 5	Estaldura konbinatua_ buffer 125m bakoitza.	aldaketa %	Udala 2010 2022. Eustat 2010 2022


	minututan joan etorria bermatzen duten azalerak (5 minutu 250 metro direnez, 125 erradioa).			
--	---	--	--	--

02. ESPAZIO PUBLIKOA ETA HIZKUNTZA

Definizioa	Xehetasuna	Irakurketa	Iturria
HAURREN PRESENTZIA /HAUR JOLASAK / ELKARGUNE MAILA EZBERDINAK			
02_01-02. Haurren presentzia eta elkargune eta haur jolasen gertutasuna.	Euskara neurketa ibilbideak eta haurren presentzia.	grafikoa	Udala 2022. Behaketak eta elkarrizketak 2022. Soziolinguistika klusterra 2021.
ELKARRIZKETAK HIZKUNTZAREN ARABERA / HAUR JOLASAK / ELKARGUNEAK			
02_03. Hizkuntza kale erabilera eta elkargune eta haur jolasen gertutasuna.		grafikoa	Udala 2022. Behaketak eta elkarrizketak 2022. Soziolinguistika klusterra 2021.

03. ESPAZIO PUBLIKO/PRIBATUA ETA HIZKUNTZA

Definizioa	Xehetasuna	Irakurketa	Iturria
ELKARRIZKETAK HIZKUNTZAREN ARABERA / TERRAZAK			
03_01. Terraza estaldura eta hizkuntza kale erabilera		grafikoa	Udala 2022. Soziolinguistika klusterra 2021.
ELKARRIZTAK HIZKUNTZAREN ARABERA / LEHEN MAILAKO KOMERTZIOA			
03_02. Eguneroko komertzio estaldura eta hizkuntza kale erabilera		grafikoa	Udala 2022. Soziolinguistika klusterra 2021.



Auzoan Egoteko Aukerak

DEFINIZIOA: "Auzo batek kalean egoteko eskaintzen duen egokitasun maila neurtuko da atal honetan."

XEHETASUNAK: "honetarako espazio publiko kantitatea eta honek duen hiri altzari kopurua neurtuko dira batetik. Bestetik, mugikortasuna begiratu da, honen oinezkotasun mailak atal hau aberastuko duelarik."

ALDAGAIK:

01. ESPAZIO PUBLIKO KANTITATEA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
ESPAZIO PUBLIKOA				
01_01. Espazio publikoen azalera biztanleriarekiko.	3 mailako elkarguneak (herri, auzo, komunitate)	m2 / auzo biztanleko		Behaketak eta elkarrizketak. Lurdata 2022
BERDEGUNEAK				
01_02. EP Berdeguneen azalera biztanleriarekiko.	elkargune berdeak (herri, auzo)	m2 / auzo biztanleko		Behaketak eta elkarrizketak. Lurdata 2022

02. MUGIKORTASUNA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
OINEZKOTUTAKO KALE %				
02_01. Oinezko kale metro lineal 100 biztanleko. Kale hauek egoteko toki bezala ulertzen dira.	kale plazak	MI/ 100 biztanleko		Geoeuskadi eta behaketak. Lurdata 2022
KOTXE TRAFIKO ERAGIN (NEGATIBOA)				
02_02. Kotxeentzako errail metro lineal 100 biztaleko. Kotxentzako kaleek hartzen duten espazioa	errail metro linealak (2 errailekotan x2, bi zentzu x2)	MI/ 100 biztanleko		Geoeuskadi eta behaketak. Lurdata 2022

03. ESPAZIO PUBLIKO KALITATEA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak	Iturria
		Finkoa	
HIRI ALTZARIAK / BANKUAK			
03_01. Banku kopurua 100 biztanleko, banku kopurua auzo azalerako edo banku kopurua auzoko elkargune eta fluxuen azalerako. Banku dentsitatea.	Modu ezberdinetan neurtu dira bankuek duten eragina	Banku/100biz, banku/Ha elkargune eta fluxu azalerako (5 mko buffer) banku kopurua (dentsitatea)	Behaketak eta elkarriketak. Udala 2022. Lurdata 2022

AI

Auzoaren Izaera

DEFINIZIOA: " auzo bakoitzeko biztanleriak duen izaera begiratuko da atal honetan."

XEHETASUNAK: Auzoko biztanleriak dituen ezaugarriak begiratuko dira, dentsitatea, adina eta sexua. Etxebizitza jabego mota ere zer esana izango du. Azkenik euskara gaitasun maila ere begiratuko da auzo izaera neurtzeko.

ALDAGAIAK:

01. BIZTANLERIA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
KOPURUA				
01_01. Biztanle kopurua		kopurua	pertsona kopurua aldaketa %	Lurdata 2012 2016 2022
ADINA				
01_02. Auzo bakoitzean dagoen haur 14 urtez beherako haur proportzioa.		%	pertsona kopurua aldaketa %	Lurdata 2012 2016 2022
SEXUA				
01_03. Auzoan bizi diren emakume proportzioa.		%	pertsona kopurua aldaketa %	Lurdata 2012 2016 2022

02. GIZARTEA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
AKTIBO / EZ-AKTIBO				
02_01. Biztanle ez-aktiboak auzoko biztanleriarekiko proportzioan.	ez-aktibo = biztanle total- (lanean daudenak+lan bila dabiltzanak)	pertsona ez aktibo %	pertsona kopurua aldaketa %	Lurdata 2011 2016

03. DENTSITATEA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	

03_01. Biztanle kopurua auzo azalerarekiko		bizt/Ha	Bizt/Ha aldaketa % tan	Lurdata 2012 2016 2022
--	--	---------	------------------------	------------------------------

04. ETXEBIZITZA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
ETXEBIZITZA DENTSITATEA				
04_01. Etxebizitza kopurua auzo azalerarekiko. Etxebizitza dentsitatea		Etx / Ha	Etx/Ha aldaketa %	Lurdata 2011 2016
ETXEBIZITZAN BIZTANLE OKUPAZIOA				
04_02. Etxebizitza nagusietan bizi diren pertsona kopurua. Batez bestekoa	erroladatutako pertsona kopura etxebizitza nagusiekiko.	Pertsona kopuru erroladua/ etxebizitza nagusiak	aldaketa %	Lurdata 2011 2016
ETXEBIZITZA NAGUSIAK				
04_03. Dauden etxebizitzekiko nagusiak direnen proportzioa.		etxebizitza guztiekiko nagusiak direnen %	aldaketa %	Lurdata 2011 2016
EDUKITZE ERREGIMENA				
04_04. Etxebizitza nagusien edukitze-erregimena (Jabetzan), etxebizitza nagusi proportzioarekiko.		etxebizitza nagusi jabetza/ etxebizitza nagusi %	aldaketa %	Lurdata 2011 2016
04_05. Etxebizitza nagusiak jabetzan etxebizitza guztiekiko.		etxebizitza nagusi jabetza/ etxebizitza guztiekiko %	aldaketa %	Lurdata 2011 2016
04_06. Edukitze-erregimena (Alokairuan), etxebizitza guztiekiko.		etxebizitza nagusi alokairuan/ etxebizitza guztiekiko %	aldaketa %	Lurdata 2011 2016

05. EUSKARA GET INDIZEA

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
GET INDIZEA				
05_01. Euskara GET indizea. Auzotarren Euskara gaitasuna, Euskara etxeko erabilera eta Euskara lehen hizkuntza	Kluster formula: Indizea a EAE (GET) =31,2 *	indize	indize aldaketa	Soziolin- guistika klusterra 2011

datuak erlazionatzen dituen indizea da. Euskara gaitasuna: EuskalAEko$\geq$2 urteko biztanleria, euskara-mailaren arabera (Euskaldunak, ia-euskaldunak, erdaldunak). Euskara etxeko erabilera: Euskal AEko biztanleria, etxeko hizkuntzaren arabera (Euskara, gaztelania, biak, beste bat). Euskara lehen hizkuntza: Euskal AEko biztanleria, ama-hizkuntzaren arabera (Euskara, gaztelania, biak, beste bat)	prop gait + 32,89 * prop etx + 35,91 *prop lehen (prop gait= Euskaldunak/gu ztira; prop etx= Euskara/gu ztira ; prop lehen= Euskara/gu ztira)			2016 2021
--	--	--	--	----------------------

AEKE

Auzoko Euskararen Kale Erabilera

DEFINIZIOA: Euskararen kale erabilera neurketatik (ibilbideka edo geolokalizatuak) auzoka erakusten duen euskararen erabilera zehatza.

XEHETASUNAK: Euskara kale erabilera neurketetatik, Soziolinguistika Klusterrak eginak, auzokako euskara erabilera datuak sortu dira. Datu hauek izango dira gainerako aldagaiekin alderatuko direnak. Hizkuntza kale erabilera neurketak modu ezberdinetan neurtu dira urteetan zehar: 2021 urtetik aurrera elkarrizketa neurketak puntu geolokalizatuak dute oinarri, lehen berriz, ibilbide neurketa orokorra egiten zen eta honetarako ibilbide zehatzetako elkarrizketa guztiekin batez bestekoa egiten zen. Hori dela eta, auzokako euskara kale erabilera datua urte ezberdinetan ateratzeko eta urte batetik bestera egon diren aldaketak ikusteko, metodo ezberdinak erabili dira: datuak ibilbideka daudenean formula bat erabiliz egin dira, eta puntu geolokalizatuak daudenean berriz, puntu horiek erabiliz egin dira auzokako datuak. Azken datu hauek soilik neurketa batean daudenez, naiz eta oso erabilgarri eta esanguratsuak izan, ez dute ohituretan eman den aldaketa erakusteko gaitasunik.

ALDAGAIK:

EUSKARA KALE ERABILERA IBILBIDEAK OINARRI

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
IBILBIDEETATIK				
01_01. Euskara kale erabilera auzoka ehunekotan.	Euskara kale erabilera neurketa ibilbideka dago neurtuta (2011 eta 2016). Datua auzoetara eramateko formula osatu dugu. FORMULA: Auzo bateko Euskara kale erabilera = a·A + b·B (a=ibilbide a-ren euskara erabilera %-tan; b=ibilbide b-ren euskara erabilera %-tan; A=Ibilbide a-ren (15m handituta zabaleran) azalera kopurua auzo poligonoan (m²) (10m handituta zabaleran) zati A+B; B=Ibilbide b-ren (15m handituta zabaleran) azalera kopurua auzo poligonoan (m²) (10m handituta zabaleran) zati A+B) Hirugarren ibilbide bat	% elkarrizketa guztietatik zenbat dira euskaraz	aldaketa %	Soziolinguistika klusterra 2011 2016 2021 + formula

	izanez gero d eta D gehituko da formulari.			
--	--	--	--	--

EUSKARA KALE ERABILERA PUNTU GEOLOKALIZATUAK OINARRI

Definizioa	Xehetasuna	Neurketa unitateak		Iturria
		Finkoa	Aldaketa	
GEOLOKALIZATUAK				
02_01. Euskara kale erabilera auzoka ehunekotan.	Auzo bateko Euskara kale erabilera kalkulatzeko: auzoko poligonoan (10m handituta zabaleran) dauden euskara puntuak zati auzoko poligonoan (10m) dauden puntu guztiak, ehunekotan adierazita.	% elkarrizketa guztietatik zenbat dira euskaraz	aldaketa %	Soziolinguistika klusterra 2021 + aldaketak ikusteko 2011 2016 (formulakoak)

6. LANDA LANA ETA EMAITZA NAGUSIAK

Atal honetan Gernikan egin dugun landa-lana eta ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztuko dira.

6.1 LANDA LANA

Ikerketaren hastapenean herriko hirigintzarekin loturiko informazio bilketa egin zen, eta herritarren iritzia eta herriarekiko duten pertzepzioa jasotzeko lan-saioak antolatu ziren.

Gernikako herritarrekin 2024ko azaroaren hogeita batean finkatu zen hitzordua, arratsaldeko 16:00tan 50 urtetik gorako herritarrekin, eta 18:00tan, 50 urte baino gutxiagokoekin, Gernika-Lumoko Kultur Etxean. Parte hartu zutenen zerrenda osatzeko profil ezberdinak bilatu ziren, eta lan hori burutzeko, udal teknikariekin harremanetan jarri eta euskarako teknikariaren laguntza jaso zen.

Parte hartu zuten herritarren artean profil ezberdinak bilatu ziren: auzo ezberdinekoak jatorriz, eta lanbide edo lan-esparru anitzekoak.

15. Irudiak: Lehen saioko argazkiak Gernikako udaleko areto nagusian




Lehenengo hitzorduan bederatzi herritar hurbildu ziren, 5 gizonezko eta 4 emakumezko, eta bigarreanean, bederatzi, 3 gizonezko eta 6 emakumezko.

Saioaren hasieran Soziolinguistikako Klusterreko Olatz Altunak eta Botoi Ikerketa taldeko Ainhoa Guerrak eta Oihana Santolariak ikerketaren aurkezpen labur bat burutu zuten Ikerketaren nondik norakoak azaltzeko eta saioaren helburua zein zen ulertarazteko.

Saioa lau ataletan banatu zen, metodologiari jarraituz: lehenengo atalean beroketa ariketa egin behar zuten, bigarren atalean burutzen dituzten jarduerak eta ibilbideak adierazi behar zituzten planoetan, hirugarren atalean auzoak identifikatu behar zituzten eta laugarrenean guztion artean erreflexionatu eta ondorioak atera behar zituzten.

Ondorengo irudietan ikus daitezke lan-saioetan erabilitako plano eta argazki batzuk:

16. irudia: Herritarren lan-saioetan baliatu zen Gernikako ortoargazkia eta fitxa.



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak landua.

17. irudiak: Gernikako ibilbide ezberdinak



Ibilbideak

Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Plazak/elkarguneak



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

6.1.1 Herritarren hirigintza-ikuspegia

Herritarrekin izandako elkarrizketetatik ondorio ugari atera ziren hainbat gaien inguruan.

Herrian izan diren aldaketa nagusiek eragin handia izan dute herritarren bizimoduan, eta horien artean garrantzitsuenetakoa, industriagunearen sorrera, eta horren desagertzea izan dela azpimarratu zen bi taldeetan. Herria nabarmenki bi zatitan banatua dago trenbideagatik eta alde batean etxebizitzak eta zerbitzuak aurkitzen badira nagusiki, beste aldean industriagunea topa daiteke. Garai batean lanpostu asko sortu ziren, eta emigrante asko erakarri zituen Gernikak, bai estatuko beste herrialde batzuetatik, eta, baita ondoko herrietatik ere. Horrek auzo berrien eraikitzea sortarazi zuen, Lorategi auzoa, esaterako. Industriagune eta enpresa askoren itxierak, Astra enpresarena bereziki, herritarrengan eragin zuzena izan zuen, eta herritarrek lanbide berrietara moldatu behar izan ziren. Egun, Gernikan lan egiten duen jendea geratzen diren enpresetan (Losan, Ebaki, ...), udaletxean, ospitalean, eskolan eta bertako bulego txikietan edo saltokietan lan egiten duela aipatu zen. Gernikar asko beste herrialde batzuetara doaz lan egitera, eta goizeko lehen orduetan trafiko arazoak izaten omen dira herritik ateratzeko; beste batzuk, ordea, Gernikara doaz lan egitera inguruko herrietatik.

Industriaguneetara lanera joandako migrazioa estatutik joan bazen, egun, emigranteen jatorria askotarikoa da. Lehen zentroan bizi zen jendea gernikarra zen, baina auzo berrien sorrerarekin batera, herritar asko periferietako etxebizitza berrietara joan ziren bizitzera, eta egun emigrante

gehienak, zaharkitua geratu den zentroko auzoan daude. Hasiera batean alokairuan hartu zituzten etxebizitzak, baina urteak pasa ahala, batzuek erosi egin dituztela aipatu zen.

Inguruetakoa auzoak beren identitate propioa garatu dute, hala nola, Lurgorri, Erreterria edo Lorategi auzoak, eta, besteak beste, bizilagun elkarte edo jai batzordeak badituztela aipatu zen. Auzo horietako biztanleak beraien artean ezagutzen zirela, aspalditik bertakoak zirelako, eta gehienak beren etxean jabe zirela esan zen.

Egun etxebizitza alokairuen merkatua ez omen dago, oso gutxi eta garesti egotekotan. Azken urteetan, oso era azkarrean, etxebizitza turistikoaren agertzea ematen ari zela eta horrek merkatuan eragin zuzena zuela komentatu zen.

Etxebizitza turistikoak bezala, turismoa asko handitzen ari da Gernikan azken urteotan, bereziki autobusetan herrira bidaiatzen duen jendea, egun pasa egitera. Donejakue bideak ere jendea erakarri egiten duela eta Urdaibai ezagutzera doan jendea ere herritik igarotzen dela aipatu zen. Gernikak ondoko herrietako jendeak erakarri egiten du dituen zerbitzuengatik; horrela, Muxikako, eta beste herri txikiago batzuetako herritarrak, erosketak, tabernetara, edo haurren eskolaz kanpoko jarduerak burutzera desplazatzen dira Gernikara.

Kirolaren inguruan mugimendu handia dagoela aipatu zen hainbat taldetan. Futbol zelaia ondoan gazte asko biltzen dira, eta han entzuten den hizkuntza nagusiki erdarara dela aipatu zen. Kirolaren gainean beste fenomeno baten inguruan hitz egin zen gazteagoen taldean: gimnasio eta lokal pribatuaren inguruan, hain zuzen. Espazio horiek industriagunea kokatua zegoen herriko partean biltzen dira, eta erdaraz gain ingeleseko terminologia asko erabiltzen dela aipatu zen, bereziki asko frankizia kanpotarrak direlako, eta anglo-saxoi jatorriko hitz ugari erabiltzen dituztelako.

Industriagune parte horretan merkatalgune handi bat kokatua dago, eta horrek herritar asko erakartzen ditu bereziki janaria erostera, nahiz eta zentroko merkataritza gune txikiak oraindik mantentzen diren. Arropa salmentara zuzendutako denda txiki ugari dago herrian eta herritarren beharrak asetzeko eskaintza dute. Fruta denda eta bestelako eskaintza ere badago herrian, zentroan bereziki, eta gernikarraz gain, ingurutako herritarrak ere hurbiltzen omen dira erosketak egitera, asteburutan bereziki.


Asteburuetan, erosketak egitera doazenak, tabernetan zerbitzu hartzera ere hurbiltzen direla aipatu zen, baina, tabernetan egoteko ohiturak aldatu direla, eta horien kokalekua desplazatu eta kontzentratu egin dela ere. Lehen tabernak kale askotan sakabanatuta zeuden, baina Pablo Picasso eta Barrenkale kaleetako oinezkotzearekin, eta, Covid garaian sortu ziren terrazetan egoteko ohitura berriagatik, gune horietan pilatzen da jendea egun, eta zutik egon ordez, terrazetan eserita egoteko ohitura gailendu da. Tabernetan lanean dauden herritarrak emigranteak izan arren, euskaraz hitz egiteko esfortzua egiten dutela aipatu zen. Euskara gutxiago entzuten bada kalean, euskaldunek erdarara jotzeko joera areagotzen ari delako dela esan zen.

Euskararen erabileraren inguruan, ez zen auzokako bereizpen berezirik egin, baina aipatu egin zen adin kontuak duen garrantzia: bereziki, haurrak tarteko daudenean, euskararen erabilpena nagusia da, baita txakurrak daudenean ere. Dena den, haurren artean erdarara jotzeko joera ere areagotzen ari zela aipatu zen, bereziki, geroz eta denbora gehiago igarotzen dutelako pantaila baten aurrean, erdarazko edukiak kontsumitzen.

6.1.2 Auzoen hautematea


Gernikarrek identifikatu dituzten auzoak beheko planoetan marraztu dira. Guztira hamairu izan dira: Landaberde, Santa Ana Tilos, Lorategieta, Erreterria, San Juan –Ibarra, Txorraburu, Zearreta_Zigerta_Epaitegiak, Lumo, Mestika- San Jose, Erdigunea, Kalzada- San Kristobal – Agarre, Lurgorri, Arana. Herritarrek identifikatutako auzoak ez datoz bat auzo administratiboekin. Ikus beheko bi mapa.

19. Irudia: Herritarrek identifikatutako auzoak



Iturria: EHUKo BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

20. Irudia: Herritarrek identifikatutako auzoak bateratuta




Iturria: EHUKo BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak


6.1.3 Ibilbide eta espazio nagusien hautematea

Lan-saioetan herritarrei eskatu zitzairen kokatzeko elkarguneak eta oinezko ibilbide nagusiak herriko mapetan. Beheko mapan ikus daitezke plazak: herri mailakoak, auzoetakoak eta komunitate mailakoak (auzo barruko plaza txikiak dira komunitate mailakoak) eta oinezko fluxuak¹¹.

21. irudia: Herritarrek identifikatu dituzten elkarguneak bateratuta



22. irudia: Herritarrek identifikatu dituzten ibilbideak bateratuta



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako plana


¹¹ Elkargunez gain, oinezko sareak ere identifikatu dira. Hiru motako sareak bereizi dira: **1. mailakoak**: oinezkoek gehien erabiltzen dituztenak, herriko ibilbide nagusiak; **2. mailakoak**: oinezkoen bigarren mailako ibilbideak; **Aisiari loturiko oinezko bideak**: kirolerako edo aisialdirako (esate baterako, paseatzeko) erabiltzen direnak.

6.1.4 Ikerketa teknikorako auzoak, elkarguneak eta ibilbideak

Ikerketa honen helburu orokorrak herri bakoitzaren eremutik gaindikoak direnez, herritarrengandik jasotako informazioa ikerketa teknikoan baliatu ahal izateko aurrez finkatutako irizpide batzuk aplikatuta landu eta bateratu beharra dago, txosten honetako 5.3.2 atalean azaldu bezala.

Honela, Gernikako lanerako herritarrekin egindako lan-saioetatik jasotako informaziotik abiatuta, segidan aurkezten den irudian ikus daitezke bateratze teknikoaren ondoren ikerketa honetarako oinarri gisa hartuko diren auzoak, ibilbideak eta elkarguneak. Beraz, zazpi auzoen lanketa egingo da ikerketan honetan: Santa Ana, Txorraburu-San Juan, Renteria-Lorategieta, Zearreta-Mestika, Erdigunea, Kalzada-San Kristobal eta Lurgorri.

23. irudia: Gernikako auzoak, ibilbideak eta elkarguneak bateratze teknikoaren ondoren



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

6.2 EUSKARAREN EGOERA GERNIKAN

Euskararen egoera soziolinguistikoaren ikuspegi orokorra emateko bi erreferentzia erabili ditugu; batetik, hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, eta bestetik, Gaitasuna-Erabileraren Transmisioa (GET) indizea.

6.2.1 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa

Euskararen kaleko presentzia Gernikako espazio publikoaren antolaketa eta ezaugarriekin harremanetan jartzeko, lehenik eta behin, komeni da Gernikan egin diren kale-neurketei erreferentzia egitea. Izan ere, ikerketa-lan honen abiapuntuan eta oinarrian urteetan Gernikan egin diren kale-neurketak daude.

Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilerari kuantifikatzeko neurketak egiten ditu 2001az geroztik¹². Neurketa horien metodologiaren ezaugarriak, labur adierazita, honako hauek dira:

*"Neurketan, hizkuntzen **ahozko erabilerari** buruzko datu enpirikoak jaso dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa, **espazio irekietan** solasean ari ziren **hiztunen jarduna** behatuz, alegia. (...) Kalean entzundako elkarrizketa horiek **zein hizkuntzatan** gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean). Gainera, elkarrizketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarri batzuk bildu dira, zuzeneko behaketa bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak; inori ezer galdetu gabe: **generoa, adina eta haurren parte hartze aktiboa, hizlari gisa.**"*

Hiru dira Kale Neurketaren helburuak:

1. Kaleetako hizkuntza-erabilerari buruzko datu enpirikoak eskuratzea.
2. Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.
3. Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea, euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitzeko eta hizkuntza-plangintza diseinatzeko balio dezan.

Hiru neurketako datuak aztertu ditugu Gernikan; hain zuzen 2011koak, 2016koak eta 2021ekoak. Hurrengo taulan ikus daiteke, neurketa horiek aintzat hartuta, euskararen kale-erabileraren bilakaera zein izan den.

1. Taula: Euskararen kale-erabileraren bilakaera. Gernika, 2011-2016-2021 (%)

	2011	2016	2021
Euskaraz	52,0	49,4	44,8

Datu orokor horiek sei ibilbidetan jaso dira: Erdigunea, Erreterria/Loratokieta, Lurgorri, Allende ikastetxe ingurua, institutu ingurua, eta Seber Altube ikastola ingurua. Lehenengo hiru ibilbideak

¹² <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-udalerrriak-2021/>

Gernikako auzoen arabera antolatu dira, eta aldiz, gainontzeko hiru ibilbideak ikastetxeen arabera antolatu dira. Soziolinguistika Klusterrak 2022an argitaratutako datuen arabera erabilera-datu orokorraren bilakaera eta irakurketa orokorra honako hau da: “2016ko neurketatik 2021eko neurketara ia 5 puntuko jaitsiera behatu da Gernika-Lumoko kaleetako euskararen erabileran (...) Ibilbideen erabilera-datuei erreparatuz ikus daiteke ikastetxe inguruetan euskara gehiago erabiltzen dela erdigunean baino. Ikastetxe inguruan, Allende ikastolan (% 58,1) jaso dira euskararen erabilera-datu altuenak, eta baxuenak Institutu inguruan (% 43,2). Erdigunean, Lurgorri (% 46,1) jaso dira euskararen erabilera-datu altuenak, eta baxuenak Erreterria/Lorategian (% 39,4) (...) Erdiguneko hiru ibilbideen bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke gorakada txiki bat egon dela 2016tik 2021era bitartean ibilbideetan. Bilakaera osoari erreparatuz gero, ordea, Erdigunean eta Lurgorri behera egin du euskararen erabilerak azken hamarkadan, eta zertxobait gora Erreterria/Lorategietan (% 37,4 2011n, % 39,4 2021ean) (...) Ikastetxe inguruetako bilakabideari erreparatuta, ikus daiteke 2016tik 2021era bitartean beherakada nabarmena jaso dela Seber Altube ikastolan (% 74,2 2016an, % 50,1 2021ean), baita Allende ikastetxean ere (% 69 2016an, % 58,1 2021ean)”.

Ondorengo bi grafikoetan 2011ko, 2016ko eta 2021eko euskararen erabilera datuak eta bilakaera ikus daitezke ibilbideen arabera:

24. irudia: Euskararen kale erabileraren bilakaera ibilbideen arabera. GERNIKA-LUMO 2011-2021 (%)




2. taula: Euskararen kale-erabileraren bilakaera ibilbideen arabera, 2011-2021

	2011	2016	2021
Erdigunea	47,2	39,9	42,8
Lagina	2.356	1.637	2.173
Erreterria/Lorategieta	37,4	37,0	39,4
Lagina	633	489	1.914
Lurgorri	57,3	43,3	46,1
Lagina	1.352	1.085	1.786
Allende ikastetxea	68,0	69,0	58,1
Lagina	541	681	675
Institutu ingurua	51,6	42,5	43,2
Lagina	779	777	731
Seber Altube ikastola	62,9	74,2	50,1
Lagina	437	822	824
Iturria. Soziolinguistika Klusterra. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, GERNIKA 2021.			

Ikerketa honetan, kale-erabileraren datuak hirigintza-aldagaiekin izan dezakeen lotura aztertzeko, herritarrek identifikatutako auzoetan oinarritu gara [ikus 6.1.2 atala], eta auzo horien erabilera datuak izateko kalkulu berriak egin dira. Horretarako ezinbestekoa izan da berariaz sortutako mugikorreko aplikazio baten bidez egin izana azken neurketak. Aplikazioarekin kalean entzundako elkarrizketak geolokalizatuta erregistratu dira (elkarrizketen hizkuntza eta solaskideen ezaugarriak). Geolokalizazioak aukera eman du eremu zehatz edo auzo baten erabilera-indize berriak kalkulatzeko. Hala, ikerketa honetan sortu diren indize berriak hirigintzako antolaketa-ezaugarriekin alderatu dira.

Esan bezala, Kale Neurketan sei ibilbide neurtu izan dira. Aldiz, herritarrekin egindako lanketan zazpi auzo identifikatu dira (ikus 6.1.2 atala): Santa Ana, Txorraburu-San Juan, Renteria-Lorategieta, Zearreta-Mestika, Erdigunea, Kalzada-San Kristobal, eta Lurgorri. Auzo horietan erabilera datuak izateko kalkulu berriak egin dira, kaleak birrantolatuta. Horretarako ezinbestekoa izan da datuak mugikorreko aplikazioaren bidez jaso izana eta informazioa geolokalizatuta egotea. Horrek ahalbidetu du auzoen arabera erabilera-datuak kalkulatzeko. Auzo bakoitzean irakurketa egokiak egiteko, neurketa-urte eta auzo ezberdinetako datuak laginaren akats-tartearen arabera multzokatu dira.¹³

25. irudia: Herritarrek identifikatutako auzoak, kale-neurketaren ibilbideak eta datuen sendotasun maila



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

Auzoen arabera erabilera-datuak kalkulatzeko, eta urte batetik bestera egon diren aldaketak aztertzeko, metodo ezberdinak erabili dira: batetik, jatorrizko datuak ibilbideka daudenean

¹³ 1. multzoa (elkarrizketa kopurua >90; akats-tartea <7); 2. multzoa (elkarrizketa kopurua >90; akats-tartea >7); 3. multzoa (elkarrizketa kopurua <90) [https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/]

formula bat baliatu da, eta bestetik, jatorrizko datuak geolokalizatuak daudenean elkarriketa-puntuen multzokatze berriak egin dira.

Jatorrizko datuak ibilbideka ditugunean baliatu den formularen kontuan hartu da auzo bakoitzetik ibilbide bat, edo gehiago, pasa daitezkeela. Horra hor formularen xehetasunak¹⁴:

Auzo bateko euskararen kale-erabilera = $a \cdot A + b \cdot B$

a =a ibilbidearen euskara-erabilera ehunekotan

b =b ibilbidearen euskara-erabilera ehunekotan

A = a ibilbidearen (15m handituta zabaleran) azalera kopurua auzo poligonoan (m2) (10m handituta zabaleran) zati (A+B)

B =b ibilbidearen (15m handituta zabaleran) azalera kopurua auzo poligonoan (m2) (10m handituta zabaleran) zati (A+B)

*Hirugarren ibilbide bat izanez gero d eta D gehituko zaizkio formulari.

Auzoen Euskararen Kaleko Erabilera (AEKE) datua da aztergai izan ditugun hirigintza-aldagai guztiekin alderatu dena. Hona hemen hamar auzoen euskararen kaleko erabilera-indizea:

2. taula: Herritarrek identifikatutako auzoen euskararen kale-erabilera (%). 2021

AUZOAK	Euskararen Kaleko erabilera 2021 (%)
Santa Ana	43,2
Txorraburu-San Juan	36,5
Renteria-Lorategieta	45,9
Zearreta-Mestika	33,6
Erdigunea	41,4
Kalzada-San Kristobal	40,7
Lurgorri	42,4
GERNIKA	44,8

¹⁴ Ibilbideen definizioa ez dator bat herritarrek identifikatutako auzoekin, ondorioz, kasu askotan, auzo batetik ibilbide ezberdinak igarotzen dira, horietako bakoitza euskararen kale erabilera datu ezberdinarekin [a eta b datuak]. Horrela, auzoko datu bakarra lortu ahal izateko [AEKE], honako prozedura egin da:


1) Ibilbide bakoitzari zabalerak bat —balizko eragin eremua— ematen zaio eta, ondorioz, ibilbide bakoitzak azalera bat okupatzen du aztergai dugun auzoan: ibilbidearen auzo-okupazioa.

2) Ibilbide bakoitzaren “auzo-okupazioen” mugalerroari ere, ekidistantzia bidez, azalera gehigarria ematen zaio perimetro osoan, balizko eragin eremuari erantzunez.

3) A eta B datuak bi ibilbideen “auzo-okupazio”en batuakarekin erlazionatzen dira [$A/A+B$; $B/A+B$], auzo-okupazio osoarekiko ibilbide bakoitzaren okupazioa —beraz, eragina— zein den identifikatzeko.


4) AEKE datua lortzeko, ibilbide bakoitzaren jatorrizko datuak [a eta b datuak] A eta B datuekin ponderatuta batzen dira.

26. irudia: Euskararen kale-erabilera auzoen arabera. 2011. Formula erabiliz.




Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

27. irudia: Euskararen kale-erabilera auzoen arabera. 2016. Formula erabiliz.




28. Euskararen kale-erabilera auzoen arabera. 2021. Puntu geolokalizatuak erabiliz. ¹⁵



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa


29. irudia: Euskararen kale-erabilera auzoen arabera. Aldaketa 2011-2016. Formula erabiliz.



¹⁵ Kontuan hartu geolokalizatutako puntuen planoetan, aidarazpen-eskala dela eta, behatu diren pertsonen kokapenak gainjarrita egon daitezkeela, eta beraz, puntu horretan pertsona bat baino gehiago behatu ahal izan dela.

Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

30. irudia: Euskararen kale-erabilera auzoen arabera. Aldaketa 2016-2021. Formula eta puntuak erabiliz.



6.2.2 Gaitasuna Erabilera Transmisioa: GET indizea

Gaitasuna Erabilera Transmisioa-GET indizea udalerri bakoitzeko euskararen egoera laburbiltzen duen indize sintetikoa da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako estatistika ofizialetan udalerri bakoitzari buruz eskuragarri dauden adierazle soziolinguistiko nagusien konbinaziotik sortzen da: Euskara-gaitasuna (G), Etxean erabiltzen den hizkuntza (E) eta Lehen hizkuntza (T). Beraz, oinarri gisa Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eskaintzen dituen honako hiru datu soziolinguistiko hauek erabili dira:

- Etxean erabiltzen den hizkuntza (Etxean erabiltzen den hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika))
 - Euskara
 - Biak
 - Gaztelania
 - Beste bat
- Euskara-gaitasuna (Euskara-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika))
 - Euskaldunak
 - Euskaldun hartzaileak
 - Erdaldunak
- Lehen hizkuntza (Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika))
 - Euskara
 - Biak
 - Gaztelania
 - Beste bat

Zenbat eta GET indize altuagoa izan, biztanleria horrek euskara erabiltzeko dituen abiapuntuko baldintzak orduan eta hobeak izango dira, eta kaleko elkarrizketak euskaraz gertatzeko aukera handiagoa izango da.

Horrela eraiki eta balioztatu da GET indizea:

*"Hasteko 3 aldagaien analisia egin da haien portaerak aztertzeko. Gero, aldagai horiek binaka elkarren artean nola eragiten duten aztertu da. Behin aldagaien joerak ezagututa, faktore analisia aplikatuz 3 aldagaiak haien arteko korrelazioa ahalik eta gehien mantentzen duen konbinazio lineala erabiliz laburtu dira. Behin euskalduntasuna indize bakarrean laburtzeko lehen formula bat edukita, azterketa ezberdinak egin dira formula hau balioztatzeko"*¹⁶.


EAEko udalerrien euskalduntasuna laburbiltzen duen indizea hurrengo formula bidez kalkula da:

$$\text{GET indizea} = 31,2 \cdot \text{prop_gait} + 32,89 \cdot \text{prop_etx} + 35,91 \cdot \text{prop_lehen}$$

Indizea 0 eta 1 eskalakoa da. "1" baloreak adierazten du udalerrri (edo auzo) horretako herritar guztiek (% 100) euskaraz badakitela, guztien lehen hizkuntza euskara dela, eta guztien etxeetako hizkuntza nagusia euskara dela. Alderantziz, "0" baloreak adierazten du eremu horretan ez dagoela euskaraz dakien herritarrik, ez dagoela euskara lehen hizkuntza duenik, eta, beraz, inoren etxean ez dela euskara hizkuntza nagusia.

Gernikan, 2021eko datuen arabera, GET indize %50,2koa da. Aurreko zentsuetatik behera egin du indizeak; 2016an %53,6koa zen indizea eta 2011ean %54,0koa. Erreferentzia modura, Gernika inguruko herrien GET indizeak jaso dira ondorengo diagraman.

1. Grafikoa: Gernika inguruko herri batzuen GET indizea, 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra


Gauzak horrela, GET indizeak auzoetako egoera soziolinguistikoa indize bakarrean kuantifikatu aukera eman digu, horretarako auzoen datu soziolinguistikoak EUSTATen *LurData* zerbitzuaren bidez lortu dira¹⁷.

¹⁶ Soziolinguistika Klusterra: "Euskalduntasun indizea, 2024"


¹⁷ https://www.eustat.eus/estad/gis_e.html

Ondorengo hiru planoetan, Gernikako auzoen GET indizeak ikus daitezke 2011ean, 2016an eta 2021ean, eta urte batetik bestera gertatu diren aldaketak:


31. irudia: Gernikako auzoen GET indizea. 2011



32. irudia: Gernikako auzoen GET indizea. 2016






33. irudia: Gernikako auzoen GET indizea. 2021



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

34. irudia: Euskara GET indizea. Aldaketak 2011-2016/ 2016-2021 /2011-2021



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa


6.3 HIRIGINTZA-ALDAGAIK ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA: ONDORIO NAGUSIAK

Atal honetan ikerketatik eratorritako zenbait emaitza aurkeztuko dira. Metodologia atalean zehaztu da zein diren hirigintza-aldagaiak eta zer-nolako ezaugarriak dituzten. Aldagai horien egoera Gernikako auzoen arabera aztertu da. Izan ere, azterketa-unitatea auzoek osatzen duten espazio sozio-geografikoa da.

Auzoetako aldagaiak bost multzotan sailkatu dira: auzoan eguneroko bizitza egiteko aukera, auzotik pasatzeko aukera, pertsonekin auzoan topatzeko aukera, auzoan egoteko aukera eta auzoaren izaera. Ikerketaren garapenerako aldagai bakoitza Auzoko Euskararen Kale Erabilera datuarekin alderatuz, irakurketa partzialak egin dira (ikus eranskina). Ondoren, ordea, irakurketa ezberdinak gurutzatuz irakurketa konplexuagoak burutu dira eta hortik eratorri dira atal honetan aurkezten diren ondorioak.

Auzoak herritarrek definitu dituzte, dinamika partehartzaileen bidez (ikus 6.1 atala). Ondoren, aurrekoetatik abiatuta eta ikerketa-lana bideragarri egiteko, ikuspuntu tekniko batetik egokitzapen batzuk egin dira 5.3.2 atalean azaldu bezala. Guztira, **zazpi auzo** bereizi dira. Beheko planoan adierazi da auzo bakoitzak hartzen duen eremua, eta 2021eko kale-neurketan jasotako elkarrizketak zehazki non gertatu ziren markatu da bolatxo bidez¹⁸. Bolatxo bakoitza solaskide bat da, eta bolatxo koloreak adierazten du pertsona horren elkarrizketa zein hizkuntzatan entzun den; euskaraz (bolatxo urdina), gaztelaniaz (bolatxo berdea), frantsesez edo beste hizkuntza batean (bolatxo zuria).

35. irudia: Euskararen kale-erabilera auzoka ehunekotan. 2021. Puntu geolokalizatuak.



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak. Kale-Neurketaren datuak Galtzaundi euskaltzaileen elkarteak.

¹⁸ Datuen irakurketa errazteko 35. Irudian ondoan jarri dira aurretik erakutsitako irudiak.

Esan bezala, hirigintza-aldagaien eta euskararen kale-erabilerako datuen artean loturarik badagoen antzematen saiatu gara ikerketa honetan. Lotura izateak esan nahi du badagoela nolabaiteko zerikusia erabilerako datuen eta hirigintza-aldagaien artean, nahiz eta, agian, ez den agerikoa beren arteko korrelazioa. Erlazio horien ezaugarriak xehatu nahi izanez gero, ikerketa honetan sakondu egin beharko litzateke, besteak beste, estatistika lan zorrotzagoa eginda eta analisi kualitatiboak gehituta¹⁹.

Aldagaien azterketatik nabarmentzeko moduko bost ondorio atera ditugu, eta horiexek jorratuko ditugu hemendik aurrera.


¹⁹ Proiektu honen markoan aurreikusita dago bost udalerriren datuak erkatzea analisi estatistikoa egiteko.

1. Euskararen GET indizeak euskararen kale-erabilerarekin lotura du

Jakina da GET indizeak, euskararen errealitate soziolinguistikoa adierazten duen heinean, euskararen presentzia sozialarekin lotura duela²⁰. Zenbat eta GET indize altuagoa izan, orduan eta biztanleria euskaldunagoa izango da, eta, teoriarik, egokiera handiagoa dago elkarriketak euskaraz gerta daitezkeen. Baina arau teoriko orokor hori ez da beti gertatzen praktikan, bai baitira beste faktore batzuk ere eragina dutenak.

Faktore horiei erreparatuz gero, lehenik eta behin azpimarratu behar da GET indizea kalkulatzeko auzoan (edo herrian) erroldatutako herritarrek hartzen direla aintzat. Aldiz, kale-erabilera kalkulatzeko, kalean dauden solaskideak behatzen dira, errolda-agiria nongoa duten kontuan hartu gabe (solaskideen artean izango dira auzotarrak ez direnak ere). Eta, jakina, auzo batzuetan bertan erroldatutakoen kaleko presentzia handiagoa da besteetan baino.

36. irudia: Auzoetako euskara Gaitasuna-Erabilera-Transmisioa eta Kale-erabilera, 2021.



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

Badira beste faktore batzuk ere GET indizearen eta kale-erabileraren arteko erlazioan eragiten dutenak. Horien artean daude hirigintzarekin zerikusia duten faktoreak, txosten honetan lantzen ari garenez.

²⁰ Gogoratu 6.2.2 puntuan definitu dugula GET (Gaitasuna Erabilera Transmisioa) indizea, udalerri bakoitzeko (edo auzo bakoitzeko) euskararen egoera laburbiltzen duen indize sintetiko gisa.

Horiek horrela, garrantzitsua da aztertzea noiz handitzen den GET indizearen eta kale-erabileraren arteko aldea. Izan ere, GET indizearen eta euskararen kale-erabileraren arteko aldeak adierazten du zenbateko galera²¹ izan duen euskararen erabilerak egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Aldea handia denean, espero baino baxuagoa da erabilera; alde txikia izatea, ordea, erabilerari ondo eusten zaionaren seinale da (ikus beheko taula).


3. taula: Euskararen kale-erabilera eta GET indizea auzoen arabera

AUZOAK	EUSKARAREN KALE-ERABILERA %	GET INDIZEA	AEKE-(GETx100)
Santa Ana	43,2	0,48	-4,8
Txorraburu - San Juan	36,5	0,56	-19,5
Renteria - Lorategia	45,9	0,42	3,9
Zearreta – Mestika	53,6	0,48	5,6
Erdigunea	41,4	0,52	-10,6
Kalzada – San Kristobal	40,7	0,50	-9,3
Lurgorri	42,4	0,48	-5,6
GERNIKA	44,8	0,50	-5,4

Taula honek erakusten du lotura badagoela GET indizearen eta erabileraren artean, baina aldeak ez dira homogeenak, eta hirigintza-aldagaien eraginak ere zerikusia izan dezake alde horietan.

Gernika osoko GET indizea 0,50 da eta euskararen kale-erabilera %44,8 da. GET indize bera du Kalzada-San Kristobal auzoak, eta indizetik gora daude Txorraburu-San Juan eta Erdigunea. Aldiz, Santa Ana, Renteria-Lorategian, Zearreta-Mestikan eta Lurgorri GET indizea Gernikako indize orokorretik behera dago. Nabarmenezkoa da Zearreta-Mestikan eta Renteria-Lorategietan GETa orokorretik behera egon arren erabilera gainera dagoela, hurrenez hurren, euskararen erabilera % 53,6 eta %45,9 da eta. Ondorengo azpiataletan ikusiko dugu ea baden hirigintza-aldagairik portaera horren zergatia ulertzen laguntzen duenik. Ikusi beharko da ea atal honetan aurkeztzen diren beste hirigintza-aldagaiak laguntzen duten euskara erabil dadin. Izan ere, Zearreta-Mestikan, esate baterako, lehen hezkuntzako ekipamenduak daude. Edonola ere, azterketa sakonagoa egin beharko litzateke aldagai horien arteko lotura ezagutzeko. Hurrengo bi planoetan ikus daitezke auzoetako erabilera-datuak (elkarrizketak geolokalizatuta) eta GET indizea.

37. irudiak: Auzoetako euskararen kale-erabilera eta GET indizea, 2021.



Iturria: Datuak Soziolinguistika Klusterrarenak eta plana EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa.


²¹ Normalean, kale-erabilera GET indizea baino baxuagoa izaten da, horregatik erabili dugu galeraren kontzeptua. Renteria-Lorategia eta Zearreta-Mestika auzoen kasua salbuespena da, erabileraren portzentajea GET indizea baino zertxobait altuagoa baita.

2. Kirol- eta hezkuntza-ekipamenduen erakargarritasunaren eta euskararen kale-erabileraren artean lotura ikusi da

Kirol-ekipamenduak

Kirol-ekipamenduek pertsonak erakartzeko duten ahalmenak eragina du euskararen kale-erabileran. Horren adibide dira Santa Ana eta Renteria–Lorategieta auzoak, non kokatzen baitira Gernikako kirol-ekipamendu nagusiak. Ikus beheko planoak. Bi kasuetan, GET indizea herriko batez bestekoa baino baxuagoa da, 0,48 eta 0,42 hurrenez hurren (gogoratu Gernikako indize orokorra 0,50 dela), baina euskararen kale-erabilera parekoa edo altuagoa da, %43,2 eta %45,9 hurrenez hurren (Gernika osokoa %44,8 da).

38. Irudia: Kirol ekipamenduen estaldura auzoka. 2023




Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako plana

Elkarrizketen datuak geografikoki aztertuta, ikus daiteke herriko elkarrizketa gehienak kirolguneen inguruan edo bertara iristen den fluxuan kokatzen direla.²²

²² Santa Ana auzoko elkarriketak ez daude geolokalizatuta (neurketa garaian arazoak izan zirelako), baina ezaguna da kirolgune albotik pasatzen den ibilbideari dagozkiola, beraz, irakurketa hau egokia dela irizten diogu.

39. Irudiak. Maloste kiroldegia: euskararen kale-erabilera haurren presentzia eta adinaren arabera

AEKE 2021



Iturria: Datuak Soziolinguistika Klusterrarenak eta planoak EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

Goiko irudietan Maloste kiroldegia inguruan neurtu diren hiztunen adin-banaketa ikus daiteke; 15-24 urte arteko gazteen presentzia da baxuena, aldiz, 45-64 urte arteko heldu dezente behatu dira kiroldegi inguruan. Aipagarria da entzundako elkarrizketetan haurren presentzia bereziki baxua dela. [ikus 39. irudiak]

Nabarmentzekoa da kirol-ekipamenduen inguruan gertatzen den mintza-jarduna testuinguru informalean zein ez-formalean gertatzen dela²³. Hau da, batetik, testuinguru informalean gertatzen da herritarren aisialdiko jarduna delako; eta bestetik, testuinguru ez-formalean ere gertatzen da, eskolaz kanpoko ekintzak eta bestelako ikastaroak bertan antolatzen direlako (helduentzat zein gaztetxoentzat). Azken urteotan, soziolinguistika arloan, sarritan azpimarratu da espazio ez-formal horien garrantzia, batez ere haur eta nerabeei begira, baina baita helduei begira ere. Besteak beste, eskola eremuak —edota orokorrean eremu formalak— eskaintzen ez dituen baldintzak betetzen direlako testuinguru ez-formalean, eta euskararen erabilera eta sustapena jolasa eta aisialdiarekin lotu daitekeelako (Eusko Jaurlaritz, 2018; Altuna, 2023).


²³ Testuinguru ez-formalean egiten diren jarduerak gidatuak izaten dira, neurri batean. Kiroldegian antolatzen diren ekintzak dira. Aldiz, testuinguru informalean ez dago inolako jarduera gidaturik, norberak antolatu eta planifikatzen duen ekintza da.

Dena den, kontuan hartu behar da kiroldegira joaten den herritarra aisialdi antolatu eta nolabait instituzionalizatuan aritzen dela; ondorioz, horrelako aisialdia garatzeko ohiturarik edo baliabide ekonomikorik ez duten herritarrak praktika honetatik kanpo geratu ohi dira. Hori horrela, kirol-ekipamenduetako erabiltzaileen profil sozio-ekonomikoa aztergai interesgarria da, benetan jakiteko zein diren ekipamendu horien inguruko euskararen erabilera altuagoaren arrazoiak.

Hezkuntza-ekipamenduak

Era berean, lotura ikusi da hezkuntza-ekipamenduen erakargarritasunaren eta euskararen kale-erabileraren artean. Orokorrean, erakargarritasun-maila eragiten duten hezkuntza-ekipamenduak dituzten auzoetan euskararen kale-erabilera handiagoa da, eta egoera hori bereziki nabarmentzen da lehen hezkuntzako zentroak diren kasuetan [ikus 40. irudia²⁴].

40. Irudia. Hezkuntza ekipamenduen estaldura auzoka. 2023



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

Esanguratsuena izan daiteke Zearreta-Mestika auzoko errealitatea. Lehen hezkuntzako bi zentro daude bertan eta GET indizea herriko batez bestekotik bi puntu beherago badago ere,

²⁴ Honela egin da heziketa ekipamenduen mailakatzea:

1: Lehen Hezkuntza (LH); Haur eta Lehen Hezkuntza (HLH); Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza (HLBH); Lehen eta Bigarren Hezkuntza (LBH)

2: Bigarren Hezkuntza (BH); Irakaskuntza berezia (Akademiak eta horrelakoak barne); Lanbide Heziketa (LH)

3: Helduen Hezkuntza (HHE); Unibertsitateak

euskararen kale-erabilera altuena duen auzoa da, Gernikako batez bestekoa baino ia bederatzir puntu altuagoa.

Txorraburu - San Juan auzoan, aldiz, hezkuntza zentroen presentzia altua izanda ere, euskararen kale erabilera herrikoa baino baxuagoa da. Zentzu horretan, aipagarria da, Haur eta Lehen hezkuntza bertan izanda ere, orokorrean, bestelako hezkuntza zentroak direla ugarienak.²⁵ Auzo honek herriko gune zentralean egoteagatik hirigintza ikuspuntutik duen konplexutasuna aintzat hartzea komeni da. [ikus 4. eta 5. ondorioak] Era berean, turismoaren eragina ere auzo honetan — Erdigunearekin batera — emango da gehienbat. Elkarrizketen hizkuntza ikusita, gune hauetan (San Juan eta Erdigunea) gertatzen dira euskara-gaztelera ez diren hizkuntzatan entzundako elkarrizketa gehienak (asko ez badira ere).


²⁵ San Fidel ikastola [hautzaindegia, HH, LH, BH], musika eskola pribatua eta bestelako akademiak daude.

3. Tabernetako terrazak eta herritarren elkarguneak haurren jolasguneetatik gertu egoteak euskararen kale-erabilerarekin lotura du

Haurrak jolasean aritzen diren guneeetan euskararen erabilera altuagoa da, oro har. Esate baterako, San Kristobal plazaren eta bertako jolasgunearen inguruan entzundako elkarrizketen % 48,6²⁶ euskaraz izan dira, hau da, bertako euskararen erabilera herriko orokorra baino ia lau puntu handiagoa da, eta auzokoa baino ia zortzi puntu handiagoa. Gainera, plaza honetan (eta San Juan plazan) elkarrizketa asko behatu dira. Parte-hartze saioetan herritarrek deskribatutako dinamikekin bat dator elkarrizketen ugaritasun hori, erdigunetik kanpo bizi diren herritarrek ere esan baitigute erdiguneko elkarguneetara joan ohi direla sarritan. San Kristobal eta San Juan plazak erdigunetik gertu daude.

Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketek edizioz edizio utzi dute agerian haurren eta nagusien arteko elkar-eraginak mesede egiten diola euskararen erabilerari. Guraso izateak askotan dakar euskararekiko kontzientzia eta praktika indartzea, eta hurrekin euskaraz aritzea. Esan daiteke indarrean dagoela haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala.


41. Irudiak. Hizkuntza erabilera (2021) haur jolas eta elkarguneetan. 2024



Iturria: Datuak Soziolinguistika Klusterrarenak eta planoa EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

²⁶ San Kristobal plaza inguruan behatu ziren 247 lagunetik 120 euskaraz ari zen.


42. Irudiak. Haurren presentzia euskararen kale-erabileran (2021) haur-jolas eta elkarguneetan. 2024



Iturria: Datuak Soziolinguistika Klusterrarenak eta planoa EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

Esku artean dugun azterketak erakutsi du errealitate hori indartu egiten dela haur-jolasguneen inguruan tabernetako terrazak egonez gero. Izan ere, Gernikan haur-jolasguneak eta tabernetako terrazak elkarrengandik gertu dituzten bi gune nagusi identifikatu dira (San Kristobal eta San Juan plaza). Bi horiek dira, egindako behaketaren arabera, jendetsuenak, eta bietan euskararen erabilerak gora egiten du [ikus 43. Irudia].

43. irudia: Haur-jolasen eta tabernetako terrazen estaldura auzoen arabera. 2024



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

Beraz, haur-jolasguneen, tabernetako terraza-eremuen eta elkarguneen gertutasunak espazio komun eta sozialki interaktiboak eratzea ahalbidetzen du, eta horrek baldintza egokiak sortzen ditu, Gernikako kasuan, euskararen erabilera modu informalean transmititzeko zein hizkuntzaren presentzia soziala areagotzeko. Azpimarratu behar da, gainera, ohikoa dela haurrak gertu daudenean euskaraz hitz egitea. Ondorio hori berretsi da azterlan honetan. Ezbairik gabe, euskararen biziberritze-prozesuari begira, berebiziko garrantzia du joera hori indartzeak eta egonkortzeak.

4. Denden kontzentrazioa eta oinezkotasun-maila altueneko auzoetan dago euskararen erabileraren eta GET indizearen arteko alde handiena

Oro har, lehen mailako saltokien edo eguneroko elikagaien saltokien kopurua biztanleko altua den auzoetan (Txorraburu-San Juan, Erdigunea eta Kalzada-San Kristobal), GET indizea altuagoa da. Alderantziz, lehen mailako denden kopurua txikia den auzoetan, GET indizea baxuagoa da. Auzoetako euskararen kale-erabilerako datuei erreparatuz, ordea, ez da loturarik aurkitu.


Deigarria da hiru auzo horietan erabilera eta GET indizeen arteko alde handia dela (9-20 puntuko alde). Are gehiago, hiru auzoetan GET indizea herriko indizearen gainetik dagoen arren, euskararen erabilera dezente baxuagoa da. Gertaera hori nabarmena da Txorraburu-San Juan auzoan: GET indizea 0,56koa da [Gernikan 0,50] eta kale-erabilera, aldiz, %36,5ekoa [Gernikan % 44,8].

Erdigunetik kanpo kokatzen diren auzoen GET indizea baxuagoa da, beraz, auzo erdaldunagoak dira. Auzo horietako herritarrak erdigunera joateko joera dutela ikusi dugu herritarrekin izandako elkarrizketetan. Arrazoi ezberdinak egon daitezke horretarako, esate baterako: Denden kontzentrazio handiagoa dago erdigunean, eta aldiz erdigunetik kanpoko auzo batzuetan apenas dago komertziorik, eta are gehiago, batzuk bizitegi-auzo izaera dute. Bestalde, erdigunean kokatzen dira administrazioeko ekipamenduak, hala nola, udaletxea, epaitegia, Ertzaintza, Lanbide, osasun-etxea, etab. Ekipamendu horiek auzoetako herritarrak erakartzen dituzte.

Horrez gain, Gernika turismo herria da eta bertara etortzen diren kanpotarrak nagusiki erdigunean ibiltzen dira. Horren adierazle da euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzak nagusiki erdigunean entzun direla, zehazki, Bakearen museo inguruan, Batzarretxe inguruan (Gernikako arbola) edota Astrako babesleku antiaereoaren kanpoaldean.


Turismoa dela eta, Goeuskadiren arabera etxebizitza turistiko gehien erdigunean daude. Ikus 44. irudiko mapa. Horrek ere, jakina, eragin handia du hizkuntzen erabileran.

44. irudia: Etxebizitza turistikoen banaketa




Iturria: Goeuskadi

45. irudia: Lehen mailako denden presentzia eta euskara datuak



Lehen mailako denda kopurua 100 biztanleko. 2023

Eguneroko komertzio estaldurak eta AEKE. 2021



Euskara kale-erabilerak, 2021.

GET indizea, 2021.

Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa


Merkataritza bizia duten guneak hizkuntza praktitarako espazio aktibo eta naturalak dira, gune horiek hiztunen arteko harreman informalak sustatzen dituzte eta. Dendek, tabernek, azokak... eremu informal eta komunitario gisa funtzionatzen dute. Bertan gertatzen diren interakzio sozialak eguneroko harremanetan oinarritzen dira. GET indize oso altuko herrietan gune hauek euskara erabiltzeko aukera ematen dute, kanpo-faktoreen batek kontrako eraginik ez badu. Gernikaren kasuan, badirudi gune horiek ez direla euskararen babesgune. Besteak beste bi faktorek izan dezakete eragin negatiboa: batetik, erdigunetik kanpoko auzo erdaldunagoetatik datorren jendearen presentzia; bestetik, turismoaren eta kanpotarren eragina. Aztertu beharko litzateke zenbaterainokoa den inguruko herri txiki (ustez) euskaldunagoetatik datorren jendearen eragina.

Mugikortasuna: oinezkotasun-mailak eta oinezkoen fluxuak GET indizearekin lotura du

Mugikortasun ikuspuntutik egoera onena duten auzoetan, oro har, GET indizea altuagoa da. Adibidez, auzoko ibilbideen oinezkotasun-mailak, hau da, auzoko bide guztien artean oinezkotutako bideen proportzioa handia denean, GET indizea ere handiagoa da.

Kontrara, ez da lotura zuzenik aurkitu euskararen kale-erabilerak altuagoarekin, auzo hauek baitira GET indizearen eta kale-erabileraren arteko alde nabariena dutenak (Txorraburu-San Juan, Erdigunea eta Kalzada – San Kristobal: -19,5, -10,6 eta -9,3 hurrenez hurren).


46. irudia: Auzoan egoteko Aukerak (AEA): Oinezkotasun maila auzoen arabera. 2022 (%)



Iturria: EHUKo BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Bestalde, oinezkoen fluxua ere bada kontuan hartzeko hirigintza-aldagai bat. Oinezkoek egunerokoan erabiltzen dituzten ibilbide nagusiek osatzen dute oinezkoen fluxua²⁷ deitzen dena. Azterketak erakutsi du oinezkoen fluxu ertaina edo altua duten auzoetan handiagoa dela euskararen erabilera.[ikus 47. irudia] Kasu honetan ere, aurrez aipatutako lotura ikusten da oro har: zenbat eta oinezko fluxu altuagoa, orduan eta GET indize altuagoa.

47. irudia: Auzotik pasatzeko Aukerak (APA): Oinezkoen ohiko ibilbideak auzoen arabera. 2022



Iturria: EHUKo BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Bestalde, mugikortasun-azpiegituren estaldura handiagoa duten auzoetan (bidegorriak, bus geltokiak eta tren geltokiak), GET indizea handiagoa da, orokorrean²⁸.

²⁷ Herritarrek aipatutako oinezko ohiko ibilbideen lerroei eragin eremu bat esleitu zaie [1.mailakoetan: 10m; 2.mailakoetan: 5m]. Hortik eratortzen da fluxuek auzo bakoitzean okupatzen duten eremua. Horrela, auzoko azalera osoarekiko, okupazio eremu horrek hartzen duen ehunekoa aintzat hartzen da. Ehuneko hori da sailkatzen dena planoan, koloreen arabera.

²⁸ Estaldurari *eragin-eremua* ere deitu dakiok. Metodologia atalean honela jasotzen da: “Elementu batek duen **estaldura** maila begiratu da. Horretarako, “Buffer” izeneko linea imaginariok sortu dira, elementu batetik distantzia

48. irudia: Auzotik pasatzeko Aukerak (APA): Mugikortasun azpiegituren estaldura edo eragin-eremua. 2024



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

Mugikortasun azpiegiturek (bidegorriak, autobus geltokiak edo garraio publikoa oro har) gizarte kohesioa eta lurralde kohesioa erraztu dezakete, batez ere, Gernika bezala, inguruko herri txikientzat eskualdeburu izaera duten udalerrietan. Gernika inguruko herri txiki euskaldunetako herritarren presentzia handiagoa izan daiteke gune horietan, eta hori lagungarria izan daiteke euskararen presentzia ere areagotzeko, baina lan honetan ez dago irakurketa hau egiteko nahikoa datu. [ikus 48. irudia]


batean dagoen azalera zirkularra jasotzen dutenak. Puntu batetik 200 metroko hurbiltasunean dagoen azalerari, 200 metroko buffer bat egin dela esaten zaio. *Bufferra* egin ondoren auzo bakoitzeko azaleraren zati bat estaliko du eta auzoko azalera osoarekin erlazioz gero, auzo bateko estaldura-maila adieraziko du".

5. Herri eta auzo mailako elkarguneen eta euskararen kale-erabileraren artean lotura ikusi da, ez horrenbeste komunitate mailakoetan

Herri eta auzo mailako elkargunetzat hartzen dira plazak eta parkeak. Elkargune fisiko horiek hizkuntza-praktikarako aukera erreal eta erosoak eskaintzen dituzte testuinguru informalean. Hain zuzen, azken urte hauetan hainbat ikerketak azpimarratu dute testuinguru informal horiek garrantzi handia dutela hizkuntza biziberritzean,²⁹ besteak beste, normalizazio prozesu osoa ezin baita soilik eremu formalaren, hau da, eskolaren eta administrazio-arloaren esku utzi. Nabarmendu behar da, gainera, eremu informalek izaera ludikoa eskaintzen diola bertan egiten den hizkuntza-praktikari, eta hori elementu ahaltsua da euskararen erabilera sustatzeko.

Kale-neurketetan behatu diren elkarrizketen artean, euskaraz ari ziren hiztun asko elkargune hauetan bertan edo oso gertu zeuden (Txorraburu-San Juan, Erdigunea, Kalzada-San Kristobal eta Lurgorri dira horren erakusle). Dena den, azpimarragarria da Gernikako auzoetan herri-auzo mailako elkarguneen banaketa nahiko homoginoa dela; hau da, auzo guztietan daude herritarrek elkarrekin egoteko guneak. Beraz, auzo guztietan daude estaldura altuak (ikus hurrengo irudia).

49. irudia: Herri-auzo elkarguneen estaldura auzo bakoitzeko. 2024.



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

Era berean, esan bezeala, partehartze saioetan gernikarrek adierazi dute auzoetan bizi diren herritarrek beraien aisialdian erdiguneko elkarguneak erabiltzeko joera handia dutela. Hain

²⁹ Hernández, Jone Miren; Ozaita, Josu eta Altuna, Olatz (2022) Euskara Legutioko moldera. Hiztunen arteko harremanak saretzen eta aktibatzen. Soziolinguistika Klusterra.

zuzen erdigunean GET indizea herriko indize orokorra baino ia bi puntu altuagoa bada ere, euskararen erabilera herriko batez bestekoarekin nahiko parekatua dago (erdigunean % 43,6 eta herrian orokorrean % 44,8). GET indize baxuagoa duten auzoetatik datozen herritarren erabilerak eragin dezake erdigunean dagoen GET eta euskararen erabileraren arteko aldea.


Erdigunean herri mailako elkargune eta parke ugari dago baina deigarria da, adibidez, oinezko fluxu nagusietatik aparte, Merkurio Iturriaren inguruko parkean zein Foru Plazan eman dela elkarrizketen pilaketa. Horrela, garrantzitsua izan daiteke gun horietan herritarrak egonean egoteko zer-nolako espazioak dituzten aztertzea; lehena da banku gehien dituen espazioa eta, bigarrenak, esertzeko/egoteko aukera eskaintzen dituen zenbait koska eta petril ugari ditu. Bestalde, oinezkotutako kaleetan dagoen solasaldi kopurua ere nabarmena da.

50. irudia: Euskararen kale erabilera (2021); bankuak oinezko fluxuetan; oinezko eta trafikodun fluxuak.



Iturria: Datuak Soziolinguistika Klusterrarenak eta planoa EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

51. irudia: Ostalaritza – terrazen estaldura.



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoa

7. AURRERA BEGIRA

Esku artean dugun ikerketa hau proiektu zabalago baten baitan kokatzen da, izan ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko bost udalerrian egin baita ikerketa bera³⁰. Proiektuaren helburua hirigintzaren ikuspegitik herri-antolaketaren eta euskararen kale-erabileraren arteko erlazioak topatzea izan da. Horretarako, berriaz metodologia bat sortu da, eta bost udalerrietan egin da ikerketa pilotua. Urte amaieran aurkeztuko dira proiektu osoaren emaitzak.

Sortu den metodologia, besteak beste, hirigintza-aldagai batzuk definitzen ditu, eta zehazten du aldagai horien informazioa nola jaso eta kuantifikatuko den. Hirigintza aldagaiak aldagai soziolinguistikoekin alderatu dira. Aldagai soziolinguistiko nagusia euskararen kale-erabilera datua izan da.

Bestalde, lanerako erabili den metodologia hastapenetik izaera parte-hartzailea izan du. Hain zuzen, besteak beste, herritarrekin definitu dira ikerketa-eremuak edo auzoak. Gernikan hamar auzo bereizi dira, eta horien arabera aztertu dira hirigintza-aldagaiak eta aldagai soziolinguistikoak. Nabarmenezkoa da aztertu diren kale-neurketen diseinuak, bere garaian, ez zirela egin auzo horien arabera, hau da, behatu ziren kaleen aukeraketa beste irizpide batzuen arabera egin zen. Horregatik batzuetan zailtasunak izan ditugu alderaketak egiteko. Hori horrela, aurrera begira *Hirigintzaren eragina euskararen kale-erabileran* proiektuak ireki duen ikerketa-ildoarekin jarraitu nahi bada kale-erabileraren neurketen diseinua auzo horietara egokitzea komeni da.

Amaitzeko, proiektuaren azken fase honetan ere – ondorioen definizioan –, interesgarria litzateke proiektuaren izaera partehartzaileari jarraipena ematea, eta txostena osatzea Gernikako errealitatea ondo ezagutzen duten norbanakoekin eta eragileekin. Guztion ikuspegiak aberastuko baitu txosten honetan aurkeztu diren ondorioak.

³⁰ Aztertu diren bost udalerriak ondorengo hauek izan dira: Gernika, Hernani, Tolosa, Zarautz eta Zornotza.